

XEDAPEN OROKORRAK

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

2074

219/2012 DEKRETUA, urriaren 16koa, Hernio-Gazume (ES2120008) Kontserbazio Bereziko Ere-mu izendatu, eta hura kontserbatzeko neurriak ezartzekoa.

Gobernu Kontseiluaren 1997ko abenduaren 23ko, 2000ko azaroaren 28ko eta 2003ko ekainaren 10eko Akordioen bidez, 6 gune deklaratu ziren Hegaztientzako Babes Bereziko Ere-mu (HBBE), eta 52 leku proposatu ziren Europar Batasunaren Garrantzizko Lekuak (BGL) izateko. Proposamen hori Europako Batzordeari aurkeztu zitzaion, eta hark Europar Batasunaren Garrantzizko Lekuen (BGL) zerrenda onartu zuen 2004/813/EE eta 2006/613/EE Erabakien bidez. Lehenengo erabakia eskualde biogeografiko atlantikoari dagokio, eta bigarrena, berriz, eskualde biogeografiko mediterraneoari; eta bi horien barne dago gure erkidegoa.

Kontseiluaren 1992ko maiatzaren 21eko 92/43/EEE Zuzentarauan, habitat naturalak eta basoko fauna eta flora babesteari buruzkoan, 4. artikuluan, eta abenduaren 13ko 42/2007 Legean, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzkoan, 44. eta 45. artikuluetan ezarritakoa betez, autonomia-erkidegoek, jendaurreko izapidea bete ondoren, beren lurraldean BGL guztiak Kontserbazio Bereziko Ere-mu (KBE) deklaratu dituzte, bai eta Hegaztientzako Babes Bereziko Ere-mu (HBBE) guztiak ere. Horrez gain, behar adina kontserbazio-neurri ezarriko dituzte, eremu horietako habitat natural mota eta espezie mota guztien premia ekologikoei erantzuteko. Kontserbazio-neurriek kudeaketa-planak edo kudeaketa-bitartekoak hartuko dituzte, bai eta arauzko, administrazio- edo kontratuko neurriak ere. Kontserbazio Bereziko Ere-muak (KBE) izendatzeko epea 6 urtekoa da, Europako Batzordeak lekuen zerrenda onartzen duenetik kontatzen hasita.

Era berean, Habitat Zuzentaruak eskatutako lehentasunak hiru maila ezberdinetan finkatu dira: lehendabizi, lehentasuna eman zaie beste babespen figura baten pean ez dauden Kontserbazio Bereziko Ere-muen izendapenari eta presio eta mehatxu handiak jasaten dituztenei; bigarren mailan, eremu bakoitzaren barruan babesteko dauden objektuen barruan, funtsezkoak direnak aukeratu dira; eta hirugarren mailan, kontserbazio-neurri aktiboak lehenetsi dira, garrantzi gehiena emanaz premia handiena dutenei edo objektuen eta, oro har, eremuaren kontserbazioan hobekuntza nabarmenagoa dakartenei.

EAEko Natura 2000 Sareko Hernio-Gazume (ES2120008) izeneko espazioan Europar Batasunaren intereseko habitatak eta espezieak daude, hain zuzen, habitatei buruzko 92/43/EEE Zuzentaruaren I. eta II. eranskinetan jasotakoak, bai eta basoko hegaztien kontserbazioari buruzko 2009/147/EE Zuzentaruaren I. eranskinean jasotako hegazti-espezieak ere. Horregatik izendatu zen Natura 2000 leku.

Hernio-Gazume kareharrizko mendigune bat da, eta han, Hernio-Gazume lerroaren gailur harritsuak eta haitzuloak nabarmentzen dira. Ingurunean, zuhaitz hostoerorkorren basoak dira nagusi, baina abeltzaintza-ustiapenak EBren intereseko larre zabalak eta sastrakadiak ere sorraziti ditu. Pagadia da baso-mota nagusia, eta horien artean azidofiloak nabarmendu behar dira. Baso helduen eta pago motzen unadak daude, interes ekologiko handikoak, eta haietan interes komunitarioko xilofagoak eta kiropteroak badaudela egiaztatzen da.

92/43/EEE Zuzentaruak Kontserbazio Bereziko Ere-muak izendatzeko ezarritako eskakizunak betetze aldera, sakon aztertu da gune hori, eta eskala egokian adierazi da Europar Batasunaren

intereseko habitaten eta eskualdearen intereseko beste habitat batzuen kokalekua. Horrez gain, Hernio-Gazumeko fauna- eta flora-espezie bereizgarrien kokapena eta kontserbazio-egoera ere aztertu da.

Aztertuta espazioaren egungo egoera, haren ezaugarri fisikoak eta ekologikoak eta kontserbazioan eragiten duten giza erabilerak, horren ondoren, lekua kudeatzeko giltzarri diren elementuak hautatzen dira, eta horiek izango dira, gero, helburu eta neurriak proposatzeko oinarri nagusia. Kudeaketa-xede diren elementu giltzarri esaten zaie, eta horien kontserbazio-egoera deskribatzeaz gain, zenbait helburu eta neurri zehazten dira, batetik, bermatzeko egoera onean kontserbatuko direla, eta, bestetik, lekuaren osotasun ekologikoa kontserbatuko dela, hori baita Habitatak Zuzentaruak ezarritako helburu nagusia.

Elementu giltzarri horietarako zehaztutako neurriak beste habitat natural eta flora- eta fauna-espezie batzuen kontserbazio ona lortzeko erabiliko dira; hain zuzen ere, aurreko elementuekin batera, Hernio-Gazume ere Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzeko arrazoi izan dira, kontserbatu beharrekoak dira eta horrexegatik babes bereziko habitat eta espezieetat jo dira.

Xehetasun-lanek aukera eman dute habitat moten informazio zientifikoa hobetzeko; baina lan horietan adierazitako azalera-datuetan, zenbaitetan, alde handiak daude Euskal Autonomia Erkidegoak, proposatutako tokien zerrendarekin batera, Europako Batzordera bidalitako eta hari jakinarazitako datuen aldean. Hasierako proposamena egiterakoan lanerako erabili zen eskalak eragin ditu desberdintasun horiek. Xehetasun-azterketan, gainera, ikusi da bazirela Europar Batasunaren intereseko espezieak hasierako proposamenean aipatu ez zirenak.

Mugaketa eguneratua Europako Batzordeari bidaliko zaio, hark onar dezan. Laneko eskala hobetzeak eragin du eguneratze hori, eta ez dakar muga-aldaketa garrantzitsurik, ez du funtsean aldatzen habitat naturalen azaleraren irudikapena, ez eta Europar Batasunaren intereseko flora- eta fauna-espezieen populazioena ere.

Hernio-Gazume Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzeko prozeduran, ondo bete da parte-hartzearen prozesua, nahitaezkoa baita uztailaren 18ko 27/2006 Legearen printzipioei jarraituz (lege horrek ingurumenaren alorrean informazioa eskuratzeko, herritarrek parte hartzeko eta justiziara heltzeko eskubideak arautzen ditu). Prozesu horretan, gizarte- eta ekonomia-interesen ordezkari diren hainbat eragilek hartu dute parte. Izapide-epeak iraun bitartean, zabalik egon dira parte hartzeko jarritako bide guztiak. Horretarako, interesa zuten herritarrei komunikazioak helarazi zaizkie eta, bestalde, propio prestatu genuen web-orri hau: <http://www.euskadi.net/natura2000>

Hernio-Gazumeren kontserbazio-neurriak lantzeko, Europako Batzordearen printzipioei jarraitu zaie, helburua baita eremu horretan bertan ageri eta 92/43/EEE Zuzentarauan adierazten diren habitaten eta taxonen premia ekologikoei erantzuna ematea. Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko 42/2007 Legearen 45. artikuluan ezarritakoa betetz, KBE bakoitzarentzat berariazko kudeaketa-tresna bat sortzea erabaki da. Dekretu honen eranskinean, arau-izaerako kontserbazio-neurriak bildu ditugu, eta kudeaketa-tresnaren gainerako dokumentazioa Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorrean ingurumenaren alorrean eskumena duen sailaren helbide elektronikoan dago eskuragarri.

Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legeko 2.f artikulua arabera, ingurumenaren babesa lurralde-antolamenduari eta hirigintzari gailentzea araudi honen oinarrian dagoen printzipioetako bat da.

Eusko Jaurlaritzari dagokio kontserbazio-neurriak ematea eta finkatzea, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen 44. artikuluan ezarritakoari jarrai-

kiz eta baita Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Babesteko ekainaren 30eko 16/1994 Legearen 17. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

Horrenbestez, Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Babesteko ekainaren 30eko 16/1994 Legearen 16.bis artikuluan eta Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen 44. eta 45.1 artikuluetan ezarritakoa betez, jendaurreko izapidea bete ondoren, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuak proposatuta, eta Jaur-laritzaren Kontseiluak 2012ko urriaren 16an izandako bilkuran eztabaidatu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Helburua eta lurralde-eremua.

1.– Hernio-Gazume (ES2120008) Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzea, Gipuzkoako Lurralde Historikoan.

2.– Kontserbazio Bereziko Eremu horren mugaketa dekretu honi eransten zaion kartografian dago jasota. Eranskin horretan, deklaritzen den Kontserbazio Bereziko Eremu horren bi mugaketa adierazten dira: batetik, Europako Batzordearen 2004/813/EE Erabakiari (eskualde biogeografiko atlantikoan Europar Batasunaren Garrantzizko Lekuen zerrenda onartzekoari) dagokion mugaketa, eta, bestetik, mugaketa eguneratua, Europako Batzordeari bidaltzen zaiona.

3.– Hernio-Gazume Kontserbazio Bereziko Eremuaren (KBE) kontserbazio-neurriak onartzea.

2. artikulua.– Xedea.

1.– Arau honen xedea hau da: Kontserbazio Bereziko Eremuan (KBE) bermatzea Europar Batasunaren intereseko habitat naturalak eta basoko fauna- eta flora-espezieen habitatak lehenera ekarriko direla edo, ondo kontserbatuta, horiei eutsiko zaiela. Horiek ezarrita daude Kontseiluak 1992ko maiatzaren 21ean emandako 92/43/EEE Zuzentarauan, habitat naturalak eta basoko fauna eta flora babesteari buruzkoan. Horrez gain, arauaren helburua da hegazti-espezieen biziraupena eta ugalketa ziurtatzea dagokion kokaleku-eremuan, eta, bereziki, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak basoko hegaztien kontserbaziori buruz 2009ko azaroaren 30ean emandako 2009/147/EE Zuzentarauaren I. eranskinean adierazitako espezieena, bai eta eranskin horretan adierazi ez diren baina gurera iritsi ohi diren espezie migratzaileena ere. Horren guztiaren azken helburua da ahalegina egitea Europako lurraldean biodibertsitatea kontserbatuko dela bermatzeko.

2.– Kontserbazio Bereziko Eremuan araubide orokor hau aplikatuko da: 92/43/EEE Zuzentarauan eta 2009/147/EE Zuzentarauan ezarritakoa, eta Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legean ezarritakoa.

3. artikulua.– Kontserbazio-neurriak.

1.– Dekretu honen helburu den eta Natura 2000 Sarea osatzen duen Hernio-Gazume eremua kontserbatzeko neurriak dokumentu hauetan zehazten dira:

a) Kontserbaziorako helburuen eta neurrien agiria.

b) Kartografia.

b.1) Mugaketa.

b.2) Habitat naturalak.

b.3) Zonakatzea.

c) Gehigarria: kontserbatu nahi diren habitat- eta espezie moten kontserbazio-egoeraren jarraipenari buruzko fitxak.

2.– Arau-izaerako xedapenak dira honako hauek:

2.1.– Helburu eta neurriei buruzko dokumentutik 4., 5., 7., 9. eta 11. tituluak eta 6. eta 8. tituluetako helburu eta neurriei buruzko koadroak.

2.2.– Artikulu honetako 1.b.1 paragrafoko eremuaren mugaketaren kartografia,

2.3.– Artikulu honetako 1.b.3 paragrafoko kudeaketarako zonakatzearen kartografia.

Xedapen hauek Dekretu honen eranskinean argitaratzen dira. Gainerakoak informatzekoak eta orientagarriak dira.

3.– Kontserbazio-neurrietan funtsezkoak ez diren berrikusketak edo aldaketak ingurumenaren alorrean eskumena duen sailburuak emango ditu, agindu bidez, egoerak berak edo eskura dauden ezagutza tekniko eta zientifikoek hala egitea eskatzen badute, eta, betiere, 92/43/EEE Zuzentarauaren 11. eta 17. artikuluetan ezarritakoa betez. Izan ere, kontserbazioa eta kudeaketa moldaerazak, etengabeak eta malguak izan daitezten lan egitea da helburua. Prozedura horretan, bermatu egin behar da herritarren parte hartzea benetakoa eta eraginkorra izango dela, 26/2007 Legeak ezarri bezala; eragindako administrazioei eta erakundeei kontsulta egingo zaie eta Naturazaintza organoaren txostena jasoko da.

4.– Ingurumenaren alorreko sailaren egoitza elektronikoa egongo dira eskuragarri kartografia -formatu digitalean, eta eremu horien mugaketa adierazita- eta kontserbazio-neurriei buruzko agiri guztiak.

XEDAPEN IRAGANKORRA.– Kontserbazio Bereziko Eremuaren eguneratzea.

1.– Kontserbazio Bereziko Eremuaren mugaketaren eguneratzea Europako Batzordeak hartutako Erabakiaren iragarkia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

2.– Dekretu hau indarrean jartzen den unetik eta KBEaren mugaketa benetan eguneratzen den arte, lehen paragrafoan adierazitakoa betez, mugaketan eguneratu nahi diren eremuetan prebentziozko erregimena aplikatuko da, hain zuzen, 92/43/EEE Zuzentarauaren 6.2 eta 6.3 artikuluan ezarritakoa eta Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen 45.2 eta 45.4 artikuluetan ezarritakoa.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Baimena.

Ingurumenaren alorreko sailburuari baimena ematen zaio Eusko Jaurlaritzaren izenean betetzeko legeak ezarritako tramite eta komunikazio guztiak, bai Estatuaren Administrazio Orokorrean, bai Europar Batasunean. Eta, hala badagokio, neurriak ezartzeak eragingo duen kostu ekonomikoa zenbatekoa den kalkulatu du, 92/43/EEE Zuzentarauaren 8. artikulua ezarritakoa betetze aldera.

2013ko apirilaren 30a, asteartea

Bigarrena.– Ministeriora helaraztea.

Gobernu Idazkaritzako eta Legebiltzarrekiko Harremanetarako Zuzendaritzak Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministeriora bidaliko du dekretu honen onespena, hark Europako Batzordea bidal dezan.

Hirugarrena.– Indarrean jartzea.

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamu-nean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2012ko urriaren 16an.

Lehendakaria,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburua,
MARÍA DEL PILAR UNZALU PÉREZ DE EULATE.

I. ERANSKINA

HERNIO-GAZUME (ES2120008) KONTSERBAZIO BEREZIKO EREMUAREN KARTOGRAFIA

MUGAKETA

(Ikus mapa)

[Http://www.euskadi.net/r33-bopvmap/eu?conf=BOPV/capas/D_219_2012/conf_LIC_ZEC.xml&lang=eu](http://www.euskadi.net/r33-bopvmap/eu?conf=BOPV/capas/D_219_2012/conf_LIC_ZEC.xml&lang=eu)

ZONAKATZEA

(Ikus mapa)

[Http://www.euskadi.net/r33-bopvmap/eu?conf=BOPV/capas/D_219_2012/conf_ZON.xml&lang=eu](http://www.euskadi.net/r33-bopvmap/eu?conf=BOPV/capas/D_219_2012/conf_ZON.xml&lang=eu)

II. ERANSKINA

HERNIO-GAZUME (ES2120008) KONTSERBAZIO BEREZIKO EREMUAREN HELBURU ETA NEURRIAK

OINARRIZKOAK EDO KUDEAKETA-HELBURU DIREN ELEMENTUAK

Hernio-Gazume babes bereziko eremu izendatzera bultzatu duten basa espezieak eta habitat naturalak eta Euskal Herriko biodibertsitatearen kontserbaziorako interesa dutenak oinarrizko elementu edo kudeaketaren helburu dira. Horrela, kontserbazio egoera onean mantentzeko kudeaketarako neurri aktiboak hartu behar dira. Beraz, helburuen katalogo bat osatzen dute, eta helburu horien gainean neurri aktiboak, zuzentarauak eta arauak definitu eta garatu behar dira.

Oinarrizko elementu eta kudeaketa-helburuen bitartez egindako hurbilketak, tokiko elementu esanguratsuak kontserbatzeko hartu beharreko neurriak hartzea baimentzen du, eta ekosistemak orokorrean hartuta baino errazagoa egiten du ebaluaketa, ahaztu gabe azken helburua ekosistemen egoera kontserbatzea dela.

Horrela, oinarrizko elementu edo kudeaketarako helburuak aukeratzeko, ondorengo irizpideak hartu dira kontuan:

- Eremuan garrantzi handia duten eta Natura 2000 Sarean (eskualdean, estatuan eta Europako erkidegoan) zaintzeko garrantzitsuak diren habitat eta espezieak, baldin eta egoera txarrean badaude eta zaintzeko kontserbazio neurri aktiboak hartu behar badira.
- Kontserbazio egoera bermatzeko, erregulatzea, moldatzea edo faboratzea beharrezkoa den giza erabileren menpekoak diren habitat edo espezieak.
- Beraiengan eragiteak beste espezie edo habitatengan, edo tokiaren osotasun ekologikoarengan onura ekarriko lukeen habitat edo espezieak.
- Beharrezko neurriak hartu ezean egoera txarrean egotera irits daitezkeela ikusi den habitat edo espezieak, eta baita talde taxonomiko baten edo ekosistema baten egoeraren adierazle onak izan daitezkeena, eta beraz monitorizatze lan espezifikoak eskatzen dutenak.

1.- HABITAT NATURALAK

Oinarrizko elementua	Justifikazioa
<u>Kobazuloak eta barrunbe karstikoak</u> (Cod.UE.8310)	<ul style="list-style-type: none"> ○ Turismoak ustiatu gabeko kobazuloek interes komunitarioko habitata osatzen dute. ○ Barrunbe karstikoetan fauna espezializatua, arraroa eta gehienetan endemikoa azaltzen da (Gipuzkoako hamar taxoi endemiko, horietatik hiru Hernio-Gazumekoak bakarrik eta hainbat euskal endemismo); espezie horiek ahulak izaten dira, eta askotan behera egin dute populazioak dituztenak. ○ Kobazuloak kiroptero-espezieen bizitoki dira, horietatik sei Euskadin zaugarriak bezala edo Habitat Zuzentarauko IV Eranskinean desagertzeko arriskuan bezala katalogatuak, eta zazpi estatu mailan katalogatuak.
<u>Basoak</u> Haritz arrunta nagusi den baso mistoak (Cod.EUNIS G1.86 Y G1.82) Pagadi azidofilo atlantikoak (Cod.UE.9120; Cod.EUNIS G1.62) Pagadi basofilo atlantikoak (Cod.EUNIS G1.64)	<ul style="list-style-type: none"> ○ Pagadi azidofilo atlantikoek interes komunitarioko habitata osatzen dute. ○ Basoek hainbat ingurumen zerbitzu eskaintzen dituzte: lurzorua eutsi eta sortzea, CO₂ xurgatzea, kalitatezko ura, aisialdirako esparruak. ○ Basoek hazkuntzarako, ezkutalekurako eta elikatzeoko habitata eskaintzen dute mehatxatutako hainbat espezierentzat. ○ Basoen kontserbazio egoera hobetuko duten eta basoetako espezieen beharrian ekologikoak hobetzen lagunduko duten neurriak jartzea ezinbestekoa da.
<u>Larreak</u> Larre lehor erdi-naturalak eta substratu kalkareo gaineko sastrakadiak CodUE.6210) Mendiko larre azidoak (CodUE.6230) Altuera gutxiko sega belardiak (CodUE.6510)	<ul style="list-style-type: none"> ○ Interes komunitarioko habitatak dira. ○ Abeltzaintza erabilera estentsiboaren menpeko habitatak dira, atzerakada nabarmena jasan duten erabileren menpekoak. ○ Larreei eta sastrakadiei lotutako hainbat hegazti eta narrasti komunitateen kontserbazioarentzat ezinbestekoak diren habitatak dira, horien artean EAEn katalogatuta dauden hainbat taxoientzat ezinbestekoak direna. ○ Espezializatutako flora, espezie arraroak eta banaketa lokala eta disjuntua duten espezieak biltzen dituzten habitatak dira.

2.- ESPEZIEAK

Oinarrizko elementua	Justifikazioa
<p><u>Fauna saxproxilikoa</u></p> <ul style="list-style-type: none"> o <i>Lucanus cervus</i> o <i>Rosalia alpina</i> o <i>Cerambix cerdo</i> o <i>Limoniscus violaceus</i> o <i>Osmoderma eremita</i> <p><u>Elona quimperiana</u></p>	<ul style="list-style-type: none"> o Euskadin, Estatuan eta Europa mailan espezie mehatxatuen presentzia. o Mantendu ahal izateko zuhaitz zaharren, hildako egurraren eta basoetako soilguneen presentzia beharrezkoa duten baso habitatei lotutako espezieak.
<p><u>Hegazti sarraskijaleak</u></p> <p>Sai arrea (<i>Gyps fulvus</i>)</p> <p>Sai zuria (<i>Neophron percnopterus</i>)</p>	<ul style="list-style-type: none"> o Europa, Estatu eta eskualde mailan katalogatutako espezieak. o Abeltzaintza estentsiboa mantentzea ezinbestekoa da espezie hauek mantentzeko eta larreen kontserbazioa bermatzeko, eta honek beste espezie batzuentzat onurak ekartzen ditu. o KBEaren inguruan gizakiak eragindako arriskuak daude: elektrizitate sarea, pozoia, etab.
<p><u>Kiropteroak</u></p> <p>Schreibers saguzarra (<i>Miniopterus schreibersii</i>)</p> <p>Ferra-saguzar handia (<i>Rhinolophus ferrumequinum</i>)</p> <p>Ferra-saguzar mediterranea (<i>Rhinolophus euryale</i>)</p> <p>Ferra-saguzar txikia (<i>Rhinolophus hipposideros</i>)</p> <p>Saguzar arratoi-belarri handia (<i>Myotis myotis</i>)</p> <p>Iparraldeko belarrihandi arrea (<i>Plecotus auritus</i>)</p> <p>Hegoaldeko belarrihandi grisa (<i>Plecotus austriacus</i>)</p>	<ul style="list-style-type: none"> o Kiroptero guztiak Habitat Zuzentarauaren IV. eranskinean jasota daude, beste hainbat II. eranskinean eta autonomia erkidego mailan eta estatu mailan katalogatuta daude. o Eremuan duen egoerari buruzko ezagutza txikia da. o KBEan Euskadin dauden kiropteroetatik gutxienez 9 agertzen dira eta hainbat basa espezie nabarmentzen dira (<i>Rhinolophus ferrumequinum</i>, <i>R. hipposideros</i> eta <i>R. euryale</i>). Guztiak bizitoki egokiaren menpekoak dira (karst barrunbeak, hildako egurra, zulodun zuhaitzak- lepatuak-). o Baliabideen ustiapen jasangarriarekiko eta bizitokiaren mantentze egokiarekiko (zutik dirauen egur hila eta kobazuloak) menpekotasun handia dute saguzarrek. o Saguzarren habitatak egoki maneiatzea onuragarria da basoko beste espezieentzat, intsektiboroentzat eta trogloditentzat.

BABES BEREZIKO ERREGIMENEAN DAUDEN HABITAT NATURALAK, FLORA ETA FAUNA

Kudeaketa aktiboa eta beraz, neurriak, jarraibideak eta arauak ondo definitzea exijitzen duten oinarrizko elementuez gain, «babes erregimen berezikoak» kontsideratzen diren habitatak eta landaretza eta fauna basa espezieak aukeratzen dira.

Bereziki babesteko habitat natural eta espezieek arreta eta babes bereziak behar dituzte, honako arrazoi hauengatik: balio zientifiko, ekologiko edo kulturala dutelako; bereziak edo arraroak direlako edo mehatxatuta daudelako; edo Habitaten eta Hegaztien Zuzentarauen eranskinetan edo Mehatxatutako Espezieen estatuko eta EAeko katalogoetan ageri direlako. Izan ere, habitat eta espezie horiengatik izendatu da Hernio-Gazume babestutako eta Natura 2000 Sareko eremu, eta, horregatik, behar bezala zaindu behar dira.

Oraingoz, kudeaketarako neurri aktiborik behar ez duten edo beren kontserbazioa oinarrizko elementuetan ezartzen diren neurrien bitartez bermatua duten espezieak eta habitatak dira.

Babes erregimen bereziko habitatak ondorengo taulan jasotzen dira:

N2000 Kodea	EUNIS Kodea	Habitata
4030	F4.23(X)	Txilardi europar lehorrak
4090	F7.44(Y)	Elorri-triskadun txilardi oromediterraneo endemikoak
8210	H3.2	Kareharrizko malkar arroksuetako landaretza kasmofitikoa.
91E0	G1.21(Z)	<i>Alnus glutinosa</i> eta <i>Fraxinus excelsior</i> duten erreka bazte-

Babes erregimen bereziko espezieak ondorengo taulan jasotzen dira:

Espezieak	Habitat Zuent.	Hegazti Zuent.	CEEA	CVEA
<i>Narcissus bulbocodium</i> subsp. <i>Citrynus</i>				IE
<i>Narcissus asturiensis</i>	II			IE
<i>Aconitum variegatum</i> subsp.				R
Gorostia (<i>Ilex aquifolium</i>)				IE
Hagina (<i>Taxus baccata</i>)				IE
Loina (<i>Chondrostoma toxostoma</i>)	II			
Txantxiku arrunta (<i>Alytes obstetricans</i>)	IV			
Musker berdea (<i>Lacerta bilineata</i>)	IV			
Arroka sugandila <i>Podarcis muralis</i>)	IV			
Eskulapio sugea (<i>Zamenis longissimus</i>)				IE
Zapelatz liztorjalea (<i>Pernis apivorus</i>)		I		

Espezieak	Habitat Zuzent.	Hegazti Zuzent.	CEEA	CVEA
Miru gorria (<i>Milvus milvus</i>)		I	EP	VU
Miru beltza (<i>Milvus migrans</i>)		I		
Mirotz zuria (<i>Circus cyaneus</i>)		I		
Arrano txikia (<i>Hieraaetus pennatus</i>)		I		R
Belatz handia (<i>Falco peregrinus</i>)		I		
Zata europarra (<i>Caprimulgus europaeus</i>)		I		
Antzandobia (<i>Lanius collurio</i>)		I		
Etze txinboa (<i>Sylvia undata</i>)		I		
<i>Myotis emarginatus</i> saguzarra	II		VU	VU

Habitat eta Hegazti Zuzentarauen eranskinak. CEEA, Espezie Mehatxatuen Espainiako Katalogoa. CVEA, EAEko Espezie Mehatxatuen katalogoa. EP, desagertzeko arriskuan. VU, zaugarria. R, arraroa.

OINARRIZKOAK EDO KUDEAKETA-HELBURU DIREN ELEMENTUENTZAKO HELBURU ETA NEURRIAK

Oinarrizko elementu bakoitzarentzat gaur egungo egoera definitzen da. «Habitat baten kontserbazio egoera», habitatarengan eta bertan bizi diren ohiko espezieengan eragiten duten eta bere biziraupena zalantzan jar dezaketen eragileen multzoa da. Habitat natural baten «kontserbazio egoera» «onuragarria» kontsideratzen da, bere azalera egonkorra denean edo handitzen denean eta epe luzera mantentzeko eta etorkizunean existitu ahal izateko egitura eta funtzio espezifikokoak egokiak direnean. Modu berean, «espezie baten kontserbazio egoera», espeziearengan dauden eragileak eta epe luzera bere populazioen banaketan eta garrantzian zerikusia duten eragileen multzoa dela kontsideratzen da. «Kontserbazio egoera» «faboragarria» dela kontsideratzen da, habitatean epe luzera bere presentzia arriskuan ez dagoela eta beraz, bere banaketa naturala etorkizunean jaitsiko ez dela eta arriskuan egongo ez dela adierazten duten datuak badaude.

Interes komunitarioko habitat eta espezieen kontserbazio egoera ona lortzea da azken helburua, habitat eta espezie mota bakoitzak kalitate aldetik eta banaketa aldetik hobera egin dezan lortzea eta etorkizunean hobetzen jarrai dezan.

Ahal izan den guztietan Habitat Zuzentaraua aplikatzeko egindako informean (17. artikulua) gomendatzen diren parametro kuantitatiboak erabili dira. Horrekin, informazio estandarizatu eta konparagarria edukitzea lortu nahi da, Estatu mailako eta komunitateko oinarrizko legedia betetzeko eta etorkizuneko informea bete ahal izateko. Horretarako, oinarrizko elementu gisa aukeratu diren habitat eta espezie guztien kontserbazio egoerari buruzko fitxak sartuko dira eranskinean, testu deskribapenekin batera. Deskripzioan agertzen diren koadroak fitxa hauen laburpena dira.

Kontserbazio egoera definitzeko erreferentziako balore argiak eta kontagarriak definitzea aholkatzen da. Kontserbazio egoera faboragarriaren definizioa eta kontserbazio egoera baloratzeko kalibrazioak ikerketa lan garrantzitsua eskatzen du. Gaur egun, kasu gehienetan ez dago horri buruzko informazio egoki eta nahikorik.

KBEan dauden habitaten artean, kontserbazio egoera baloratzeko lehen urratsak eman dira, banaketaren kartografia eginez, baina bere kontserbazio egoera baloratzeko adierazle kuantitatiborik ez dago.

Kasu hauetan, planaren helburu da informazio gabezia horiek zehaztea eta oinarrizko elementuen alde, gaur egungo kontserbazio egoera zehatzago definitu ahal izateko neurriak ezartzea.

Behin oinarrizko elementu guztien gaur egungo egoera zehaztuta, amaierako helburuak proposatzen dira, bakoitzaren kontserbazio egoera ona bermatzea ahalbidetuko dutenak. Helburu horiek ezingo dira beti plana indarrean dagoen bitartean lortu. Askotan, erantzun epea edo sistema naturalek eboluzionatzeko behar duten denbora oso luzea izaten da edo abiapuntua oso egoera txarrean dago, beraz, berehalako neurriak planteatzen badira ere, planaren exekuzioaren bitartean hasierako aurrerapausoak besterik ez dira nabarmenduko.

Ondoren, gaur egungo kontserbazio egoera baldintzatzen duten faktoreak deskribatzen dira, oinarrizko elementuek helburu bezala definitu den kontserbazio egoera mantentzea erraztu edo zailduko duten faktoreak. Faktore hauetako batzuk kudeaketa dokumentutik eta kudeatzaileen kompetentzia eta erabakietatik kanpo daude, beraz, plan honetatik at landu behar dira. Hala ere, hori horrela den kasuetan, helburuak lortzea horren menpekoa izan daitekeela kontuan hartuta, atal honetan identifikatuko dira.

Esan bezala, azken helburuak zenbaitetan ezin dira lortu gestio dokumentua aurrera eramateko jarritako sei urteetan. Horregatik, helburu bakoitzerako epe horretan lortu beharreko emaitzak edo helburu operatiboak jarri ditugu, aldeko kontserbazio egoera lortzeko bidea ahalik eta arinen egiteko, dauden bitartekoak kontuan hartuta.

Amaitzeko, emaitza bakoitzarentzat neurriak, kudeaketarako jarraibideak eta arauak definituko dira, emaitza horiek lortzea ahalbidetuko dutenak.

Kasu guztietan, oinarrizko elementu eta helburuak definitzeak, ebaluagarriak diren helburuen gainean kudeaketa errazten dute. Hala ere, beti kontuan hartu beharko dira dokumentu honetan aipatzen diren neurri guztien helburua, tokiaren osotasun ekologikoa bermatzea dela, Euskadiko babestutako zonaldeen sarean duten ekarpena bermatzea eta ekosistemek eskaintzen dituzten baliabide eta ingurumen zerbitzuak bermatzea.

1.- KOBAZULOAK ETA BARRUNBE KARSTIKOAK

Kontserbazio egoera			
<p>Kobazuloetako komunitate biologikoentzat eta akuiferoentzat filtrazio bidezko kutsadura organikoa da arrisurik handiena, baina 2002tik Altzolarratz eta Granada errekan egin diren ur kalitate analisiek baldintza fisiko-kimiko onak eta makroornogabe eta fitobentoen datu onak eman dituzte.</p> <p>Barrunbe gehienek ez dute giza presiorik jasaten, beraz kontserbazio egoera egokian mantentzen dira.</p> <p>Iristea erraza den barrunbe batzuen kasuan bandalismo zantzuak aurkitu dira eta saguzar hibernatzaileen eta ornogabeen populazioen beherakada nabaritu da.</p> <p>Leze Handia eta Sabe saiako leize inguruan egindako baso landaketa lanek kobazulorako sarreran modu nabarmenean eragin dute, sarrera ia estaliz.</p>			
Kobazuloak eta barrunbe karstikoak: Ona-aldekoa			
Azalera	Egitura	Funtzioak	Etorkizunerako aurreikuspenak
Ona-aldekoa	Ona-aldekoa	Ona-aldekoa	Ona-aldekoa

Baldintzak	
<p>Aziendaren garapenak ez du aurreikusten kutsadura barreiatua. Oria eta Urolara doazen errekaen ur kalitatea aztertzeke laginketa punturik ez dago. Abeltzaintzako ustiategietako arau teknikoak, higieniko-sanitarioak eta ingurumenekoak ezartzen dituen uztailaren 6ko 141/2004 Dekretuak dio, beste gauza batzuen artean, ardi eta ahuntz ustiapenen egitura finkoak eta parasitoak kentzeko bainu-putzuek, hondakin isurkiak jasotzeko depositu bat eduki beharko dutela.</p> <p>Kobazuloetan eman den giza degradazioak modu negatiboan eragiten du karst-aren balioetan; hainbatetan, sartzeko erraztasunak hainbat espezierengan eragiten du modu zuzenean, eta baita zeharka ere, ingurumen-baldintzak aldatuz.</p> <p>Degradazioak saihesteko jarritako itxiturek, kobazuloa bizitoki bezala darabilten saguzarren eragin dezakete.</p>	
Helburu eta neurriak	
1. helburua	KBEko kobazulo eta barrunbeak modu egokian babestu.
1.1. emaitza	Modu egokian KBEko barrunbeak eta akuiferoaren kontserbazio egoera definitzen da parametro kuantitatiboan bidez, eta erregimen prebentiboa eta alarma goiztiarreko sistemak jartzen dira martxan.
Neurriak	<ol style="list-style-type: none"> 1) Biodibertsitatearentzat garrantzia duten haitzuloak kontserbatzeko alerta goiztiarreko sistema garatzeko mekanismoak, akordioak, hitzarmenak, diru-laguntzak, etab. aurrera eraman espeleologia esparruko erakundeekin. Horretarako, prestakuntza eta sentsibilizazio ekitaldiak antolatuko dira, eta kobazuloetako saguzar eta haitzuloetako beste hainbat balore naturalen populazioaren jarraipena egiteko fitxa-ereduak banatuko dira. 2) Alerta sistemak saguzar edo beste balore natural batzuen presentzia antzema-tea ahalbidetzen duen zuloetan edo lehendik ezarritako bere parametroen alterazioak agertzen dituztenak, adituek aztertuko dituzte. Horretarako, boluntario sareak antzemandako presentzia edo narriadurak ebaluatuko dituzte eta kasu bakoitzean kudeaketa neurri egokiak ezarriko dituzte. 3) Gipuzkoako Diputazioaren ur kalitatea aztertzeke Laginketa Puntuaren Sarean beste bi puntu gehitu, Granada eta Altolarratz eta Asteasu erreka inguruetan egon daitezkeenak.
Jarraibideak	<ol style="list-style-type: none"> 4) Ezarritako prebentzio-mekanismoak betetzeko asmotan, lurpeko barrunbeetan eragin dezakeen edozein ekintzatan, batez ere baso-lanetan eta abeltzaintza-instalazioen hobekuntza-lanetan, inpaktuak gutxitzeko neurriak eta arintze-neurriak hartu beharko dira. 5) Zulo edo haitzuloren bateko sarrera itxi behar bada, saguzarretan aditua den norbaiten aholkua eskatu beharko da, itxitura mota egokiena aukeratzeko.

1.2. emaitza	Hainbat barrunberen sarreran ikusitako inpaktuak ezabatuko dira.
Neurriak	<p>6) Kaltetutako zulo guztien sarrerak berriztatuko dira eta material edo zabor metaketak dauden sarrerak garbituko dira, gutxienez Leize Handia eta Sebe Saiako Leizea.</p> <p>7) Baloreen kontserbazioa bermatzeko itxi beharreko zulo edo haitzuloen sarrerak itxi egingo dira, basa fauna eta florarentzat balioa duten elementu natural, kultural eta geomorfologiko georreferentziatuen zerrenda irekian azaltzen denaren arabera.</p>

2.- BASOAK

Kontserbazio egoera

Basoak eta baso egoera aurreko formazioek (hurritziak, sahastiak eta haltzadiak) eta berriki EUNIS kartografian baso gazteak eta berriki moztutakoak bezala sartu diren bederatzita esparruk, Hernio-Gazumeko KBEaren 971 ha hartzen dute, hau da, bere azalera orokorraren % 44. Basoen gehiengoa pagadia da (740 ha).

Azalera gain, ez dago basoen kontserbazio egoera ebaluatzeko bestelako datu kuantitatiborik; baina ikus daitezkeen ezaugarri komunak dituzte:

- Lehenik, zuhaitz lepatuen presentzia, bai modu sakabanatuan agertzen direnak, baita unada txikiak ere; batez ere pago eta haritzak dira, baita gaztainondo eta sahatsak ere, eta baita diametro handia duen eta zulo eta hildako adarrak dituen urki handiren bat ere.
- Bigarrenik, ekotonoen presentzia urria antzematen da, hau da, baso ingurunearen eta ingurune irekiagoen arteko trantsizio zonalde naturalak urriak dira. Antzina larreak inguratzen zituen hormak mantentzen diren zonalde batzuetan hainbat ekotono ikusten dira, eta bertan hurritziak eta astigarrrak agertzen dira beste zuhaixka batzuen artean, hala nola Lambezarre eta Larraulen; beste puntu batzuetan urkidiek pagadi eta larreen arteko trantsizio gisa funtzionatzen dute (Endaitzburu, Alkiza) eta baita benetako ekotonoa osatzen duten zonaldeak ere, esaterako, Altamira (UTM X 572000, Y 4778400) edo Mendigain, Hernialde). Baina orokorrean, eta batez ere pagadien kasuan, basoak zuzenean toki irekiagoetara pasatzen dira, ekotonoen presentziarik gabe. Gauza bera gertatzen da basoen eta landaketen artean.

o Pagadiak.

Pagadiak 740 ha hartzen dute, ia kopuru berdinean pagadi basofiloek eta azidofiloek.

Ez dago baso hauen kontserbazio egoeraren informazio kuantitatiborik, bere jarraipen sistematikoa egin eta joera ikusteko. Baina ikusten da gaur egun bigarren mailako basoen ezaugarriak dituztela pagadiak, adin bereko zuhaitzen masa homogeneoekin, jatorrizko pagadien egituratik urrun: zuhaitz estratua ia monoespezifikoa da, soilgune eta ekotono gutxiarekin. Horrek guztiak kontserbazio egoera egokia ez dela aurreikustera eramaten du.

KBEan pagadi zabalak badaude ere, Alkiza eta Hernialdekoak esaterako, Gatzumeko hegoaldean, Errezilen, bereziki zatikatuta daude, bai kausa naturalengatik (arroka ugari eta lurzoru eskasia dela eta), eta baita gizakiaren eraginarengatik ere.

Alkiza eta Hernialde bezalako zonalde batzuetan, lepatu unadetan zulo ugari eta hildako egurra eskaintzen duten ale zaharrak daude.

Egoera onean ere basofiloak baino dibertsitate gutxiago duten pagadi azidofiloek (CodUE 9120), KBEaren 349

2013ko apirilaren 30a, asteartea

ha hartzen dute, potentzialki legokiokeen 941ha baino askoz txikiagoa; hala ere badirudi handitzen ari dela azalera hori. EAEko Natura 2000 Sareko pagadien azalaren % 2 hartzen dute KBE honetako pagadiak. Zonalde batzuetan azalera nabarmeneko basoak dira, hala nola Alkizakoa.

Pagadi basofiloek 391 ha hartzen dituzte, potentzialki legokiokeen 1.080 ha-tik oso urrun, eta badirudi zabal-tzen ari dela. Espainiar Estatuan pagadi hauek ez da interes komunitarioko habitat kontsideratzen. Hala ere, mehatxatutako basa fauna espezie gehienek pagadia aukeratzen dute, azidofiloa den edo ez ezberdindu gabe. Horregatik, ez da zalantzan jartzen espezie hauentzat habitat honek duen balioa.

Etorkizun ona aurreikusten zaie pagadiari, izan ere, basa aprobetxamendu zaila eta errentagarritasun ekono-miko txikia dutelako, zonalde aldapatsuetan eta iristea zaila den tokietan baitaude.

Pagadi azidofilo eta basofilo atlantikoak: desegokia-kaltegarria

Azalera	Egitura	Funtzioak	Etorkizunerako aurreikus-penak
Desegokia-kaltegarria	Desegokia-kaltegarria	Desegokia-kaltegarria	Ona-aldekoa

- o *Quercus robur* duten basoak
 - *Quercus robur* nagusi den baso azidofiloak

Baso hauek hartzen duten azalera KBEan oso txikia da, 85 ha-koa, azalera potentziala 160 ha-koa den bitar-tean. Hala ere, EAEko Natura 2000 Sarean dauden hariztien % 17 osatzen du.

Kartografiatu diren 35 esparruen batez besteko tamaina 2,25 ha-koa da soilik; bariantza oso altua da ($1,21 \times 10^8$), izan ere 10 ha baino handiagoak diren 2 baso baitaude, eta 6 baso 1 ha baino gutxiago dutenak; perimetroaren eta azalaren arteko ratioarekin gehienetan.

Hala ere, basa espezie gehienentzat zatiketa analisia baso guztiak orokorrean hartuta egin behar da. Haritza edozein portzentajetan duten orbanak aztertuta, 47 esparru identifikatzen dira 19.9 ha-ko batez besteko taminarekin eta 27 baso txiki 1 ha baino azalera txikiagoarekin.

Quercus robur nagusi duen baso azidofiloa: Desegokia-txarra

Azalera	Egitura	Funtzioak	Etorkizunerako aurreikus-penak
Desegokia-txarra	Desegokia-kaltegarria	Desegokia-kaltegarria	Desegokia-kaltegarria

- Pagadi-harizti azidofiloak (Cod EUNIS G1.82)

Hernio-Gazumen baso mota honek hartzen duena zaila 130 ha-koa da, eta garrantzitsuena Zelatungoerre-kan aurkitzen da, oso handia, baina barruan hainbat landaketa dituena. Arburuan beste pagadi-harizti bat dago, txikia, baina beste harizti batekin lotuta.

Badirudi mota honetako baso mistoek ezin dutela gaur egungo azalera baino azalera handiagoa hartu, izan ere, harizti eta pagadien azidofiloen arteko trantsizio zonaldean kokatuta baitaude.

Egurraren merkatuak izan duen garapena eta naturaguneen eskaera sozialak bultzatutako kudeaketa publi-koaren adaptazioa ikusita, ez dirudi etorkizunean arriskuan egongo direnik, batez ere orografia konplexuagoa den tokietan, Sustariek esaterako. Horregatik, denbora igaro ahala baso horien egitura eta funtzionalta-suna hobetuz joango dela pentsatu behar da, eta beraz horien kontserbazio egoera ere bai.

2013ko apirilaren 30a, asteartea

Pagadi-harizti azidofiloak: Desegokia-kaltegarria			
Azalera	Egitura	Funtzioak	Etorkizunerako aurreikuspenak
Ona-aldekoa	Desegokia-kaltegarria	Desegokia-kaltegarria	Ona-aldekoa
Baldintzak			
<p>Ez dago basoen kontserbazio egoerari buruzko ebaluaketarik. Gaur egungo jarraipen protokoloak ez dira egokiak biodibertsitate eta ekosistemen ikuspegitik. Zaila da baso naturalen kontserbazio egoera zein den adieraztea fidagarriak, konparagarriak eta kudeaketa birbideratzea ahalbidetuko duten aldaketen aurrean sentikor diren adierazleekin. Baso ekosistemen kudeaketaren parametroen erantzuna normalean epe luzera antzematen hasten da, beraz, ez dira kudeaketan erabilgarriak. Hala ere, denbora eskala ezberdinetan kudeaketa ebaluatzea ahalbidetzen duten balore kuantitatiboak ezartzea ezinbestekoa da. EA Eren kudeaketa adierazleen proposamenak zatiketa edo fragmentazio indizea dakar, baina oraindik ez da ezarri. Gauza bera gertatzen da masen naturaltasuna eta egituren konplexutasuna neurtzeko adierazleekin. Hildako egurraren neurketa epe laburrera gertatzen diren aldaketen aurrean sentikorra den bitartean, basa hegaztien joerak, koleoptero saproxilikoak dibertsitatea edo estratu bakoitzak duen espezie dibertsitatea bezalako parametroek, epe ertain edo luzera gertatzen diren aldaketetarako balio dute. Edozein modutan, adierazleen emaitzak konparagarriak izan behar dira, eta beste espazioetan aplikagarriak, beste analisi-eskala batzuetan informazio fidagarria lortzeko.</p> <p>Basoen egitura simple eta dibertsitate gutxikoa garai bateko giza eragileen ondorio da, abeltzaintza eta XIX eta XX. mendeko lehen erdialdeko burdinolak asetzeko egur ustiaketen ondorio.</p> <p>Azken hamarkadetan, pagadiak, eta orokorrean baso hostoerorkorrak ez dira ia ustiatu KBEan. Gaur egun ez da baso ustiapenik ematen bertan. Egur ateratzea, berriz, geroz eta gutxiago ematen da, baina zuhaitz zaharrei eta eroriei eta hildako egurrari eragiten dion ekintza da.</p> <p>Pagadiak kudeatzeko helburuek hauen egituraren konplexutasuna areagotzera jo beharko lukete, ekotonoen presentzia, espezieen dibertsitatea eta masen barneko soilguneak bultzatuz. Modu berean zuhaitz helduen eta zaharren eta hildako egurraren presentzia ere faboratu beharko lukete. Baina instituzioek jabe pribatuen artean kudeaketa hau bultzatzeko jarritako laguntzak urriak dira. Hala ere, eta modu urrian erabili badira ere, badaude Landa Garapenerako Programaren barruan horretarako laguntzak.</p> <p>Pagadi eta harizti askotan (Gurutzetxo, Indo, Zelatungo erreka, Landabezar eta Hernialdeko pagadian dauden hainbat unadetan...) zuhaitz zaharrik ez dagoela ikusi da, eta beraz zulo eta barrunbe naturalen kopurua txikia da; ondorioz, zuhaitz zaharrei lotutako fauna eta flora epifitaren presentzia urria da. Azkenik, zutik dirauen hildako egurrik ere ez dagoenez, mehatxatutako hainbat ornogaberen presentzia zaila gertatzen da.</p> <p>Pagadiak, azidofilo nahiz basofiloek, dibertsitate espezifikoa baxua dute. Gainera, garai bateko ikazkintzak beste espezieen aurrean pagoari mesede egin zion eta pagoa zepa bidez ernaberritzen errazagoa da beste espezieekin alderatuz. Bigarren mailako espezierik ez egoteak bertako animalientzat eskaintza trofikoa nabarmen jaistea dakar.</p> <p>Egituraren homogeneotasuna, gainera, garai bateko kudeaketak indartu egin du, izan ere, garai batean soilgunerik gabeko pagadiak bultzatzen baitziren, fauna eta landaretzarentzat garrantzitsuak diren soilguneak «birsortzeko akatsak» kontsideratu izan baitira. Ondorioz, pagadi gehienek masa jarraituegia osatzen dute.</p> <p>Zuhaitz lepatuek adar oso handiak dituzte azken hamarkadetan ez baitute tratamendurik jaso, eta horregatik, deskonpentsatuta daude eta haize boladen aurrean oso sentikorrek dira. Azken hamarkadetan mantentze lanak egin ez direnez, arriskuan daude, zutik dirauten hildako zuhaitzetan egon ohi diren zulo eta barrunbeak kopurua ere arriskuan jarritik. Gainera, gizarteak ez ditu zuhaitz lepatuak baloratzen, eta askotan egurra ateratzeko markatzen dira, gaixotutako edo eroritako zuhaitzak bezala.</p>			
Irailak 5eko 80/2000 Foru Dekretuak Gipuzkoako basoetako zuhaitz lepatuak mantentzeko, hobetzeko eta			

garatzeko erregimena ezartzen du, Gipuzkoan zuhaitz hauen desagertzea ekiditeko.

2010eko urtarrilaren 1ean Gipuzkoako Foru Aldundiari emandako «Biodibertsitatea eta lepatuak» LIFE proiektua jarri zen martxan. Honen helburua, lepatutako zuhaitzen bitartez, interes komunitarioko hainbat koleoptero saproxilikoren presentzia epe luzera ziurtatzea da. Hernio-Gazume, besteak beste lepatuen kartografia, baso habitaten kontserbazio egoera zehaztea, lepatuen ezaugarri ekologikoak zehaztea eta lepatu berriak sortzea biltzen duen proiektu honetan murgildu da. Baina horrez gain beste puntu batzuk ere jorratuko dira, lepatutako unaden erreserba sarea eratzea, lepatuak mantendu eta sortzeko prozesua, etab. Hernio-Gazumeren kasuan gaur egun jabetza pribatua duen Alkizako 300 ha inguruko pagadi azidofiloa eskuratzea proposatzen da. LIFE proiektu honek dokumentu honen helburuak betetzen lagun dezake.

Lepaketa oso garesti suertatzen da gaur egun, ez baitira bere produktu eratorriak aprobetxatzen. Baso kultural hauen erakusgai moduan kontserbatzea komenigarria bada ere, bere kudeaketak ez du bere helburu nagusia ordezkatuko, hau da, masa helduak lortzeko helburua ordezkatuko. Kartografia eta datu base zehatzik ez edukitzeak ez du ahalbidetzen gaur egungo aleen kokapena eta egoera zehatza jakitea, kuantifikatzea eta hortaz kontserbaziorako kudeaketa egokia eramatea.

Orokorrean, larre eta baso landaketa tartekatuak jartzeak ez ditu ekotonoak errespetatzen hauen eta basoen artean, batez ere, pagadien kasuan. Ekotonoek garrantzia handia dute, izan ere, bertan larreetako zein basoetako espezie askok babeslekua eta elikadura aurkitzen baitute eta hortaz, espezie aberastasuna eta ugaritasuna habitat hauetako bakoitzean dagoen aberastasuna baino handiagoa da. Bestalde, ekotono hauek «ertz-efektua» gutxitzen dute, espezie generalistak edo landaretza exotikoa sartzea galaraziz.

Gaur egun pagadiak naturalki hedatzen ari direla ikusi da; hazkuntza hau hariztien azalera hartuz gertatzen ari da, eta aldaketa klimatikoaren eraginez prozesu hau azkartu egingo da ziurrenik. Batez ere, bi baso formazioen arteko kontaktuzko zonaldeetan ikusten da hori, giza ekintzaren eraginez gutxitzen ari diren hariztien egoera larriagotuz. KBEko pagadi-hariztietan hedatze hori gertatzen ari den ez dakigu.

Orain dela urte batzuk arte-basoen balioa egur-produkzioaren arabera kalkulatzeko soilik. Gaur egun geroz eta gehiago baloratzen dira basoen zerbitzu ekologikoak, CO2 xurgatzea, aisialdirako esparruak, lurzoruen babesa, erregulazio hidrikoa edo ura eta atmosfera garbitzea esaterako, eta baita biodibertsitatearen babesa; baina ingurumen zerbitzu hauen onura gehienak oraindik ez dira baloratu.

Helburu eta neurriak

2. helburua	Baso naturalen naturaltasun eta egituraren konplexutasun gradu altua lortzea eta KBEko unaden fragmentazioa gutxitzea.
2.1. emaitza	Interes bereziko hostoerorkorren unaden kontserbazioa ziurtatu da.
Neurriak	<p>8) Alkizako pagadi azidofiloen 25 ha-ren jabe egin (LIFE+ Biodibertsitatea eta Zuhaitz Lepatuak -B1- proiektuan sartutako neurria). Hori posible ez balitz, jabeekin etengabeko kontserbazio-akordioak sustatuko dira.</p> <p>9) Kartografiatzen diren eta basoei heterogeneotasuna ematen dieten urki, hurritz, elorri, haltzadi eta sahasizko unada berriak gehitzea, dagoeneko Babes Zorrotzeko Eremutzat (BZE) sartuta dauden unadei, eta baita zuhaitz lepatuen presentzia handikotzat identifikatzen diren eremuen % 20 ere. «Basa fauna eta landaretzarentzat balioa duten elementu natural, kultural eta geomorfologikoen inbentario geoerreferentziatu irekian» sartuko dira horiek guztiak.</p> <p>10) Lepaketari buruzko informazio idatzia eta ahozko informazio teknikoak jaso, Zuhaitz Lepatuak kontserbatzeko metodologia zehaztu eta KBEan zuhaitz lepatuak dituzten 25 ha-tan lan egin (LIFE+ Biodibertsitatea eta zuhaitz lepatuak -A4 eta C2- proiektuan sartutako neurria).</p> <p>11) Kontserbaziorako helburu eta jarraibideak idatzi (LIFE+ Biodibertsitatea eta Zu-</p>

	<p>haitz Lepatuak -A9-proiektuan sartutako neurria) eta baita zuhaitz lepatuak berrezarri eta sortzeko neurriak ere (LIFE+ Biodibertsitatea eta Zuhaitz Lepatuak -A8-proiektuan sartutako neurria)</p> <p>12) Lepaketan aritzeko formazio tailerrak garatu (LIFE + Biodibertsitatea eta Zuhaitz Lepatuak -D9-).</p>
Arauk	<p>13) Lepatuen presentzia nabaria duten basoetan sortutako babes zorrotzeko eremuetan (BZE), lepatuak mantentzeko edo berrezartzeko ekintzak bakarrik gauzatu ahal izango dira (LIFE+ Biodibertsitatea eta Zuhaitz Lepatuak -A9- araua), edo «basa fauna eta landaretzarentzat balioa duten elementu natural, kultural eta geomorfologikoen inbentario geoerreferentziatu irekiak» ezartzen duen babes-erregimenarekin bat datozen ekintzak.</p>
Jarraibideak	<p>14) Bertako hosto erorkorrak kentzea ekidingo da (zaharrak, lepatuak, handiak, adarkatuak ...), eta baita lursail partikularretan ere, behar izanez gero kontserbaziorako akordioak lortuz. Derrigorrez horrelako zuhaitzen bat moztu behar izango balitz, ahalik eta denbora gutxien zuhaitz horren funtzio ekologikoa bete ahal izango duen zuhaitzekin konpentsatuko da, KBEaren barnean kantitate orokorra mantendu dadin.</p>
2.2. emaitza	Hariztien azalera gutxienez 30Ha-tan handitu da, eta dauden orbanen dispersioa gutxitu.
Neurriak	<p>15) KBEaren «Txanda laburreko espezieen forestazioa mugatzeko» Landa Garapen Jasangarrirako Programako neurrien analisia eta intzidentzia egin, biodibertsitateko egokiak diren adierazleak erabiliz, eta behar den kasuetan, gutxienez lor ditzakeen probetxuen % 20 edo gaur egun landaketek osatzen duten azaleraren % 25 lortu arte bere aplikazioa hobetzeko neurriak plazaratu.</p> <p>16) Tresna honen indarraldian, lurzoru publikoan eta Berrezartze Ekologikoko Eremuen (BEE) barruan dauden baso-landaketen % 100 harizti bilakatzeko.</p> <p>17) Hariztien azalera 30 ha-tan handituko da merkatuan balorea duten baso-landaketak ordezkatzeko dituzten unada eta oin tartekatuekin. <i>Quercus robur</i>, <i>Prunus avium</i>, <i>Acer sp.</i>, edo <i>Sorbus sp.</i> espezieak landatuko dira, baso jabeekin kontratuak sustatuz. Gaur egun dauden hariztietatik gertu dauden lursailei, arboladien arteko distantzia txikitzen dutenei eta gaur egun kanpoko espezie exotikoen landaketek okupatzen dituztenei, lehentasuna emango zaie. Lehentasuneko zonaldeak Santa Krutz eta Arburua (Alkiza), Euztako erreka eta Pagauntzako erreka (Errezil) eta Mendikute (Albiztur eta Tolosa) izango dira.</p> <p>18) Zatiketa adierazle ezberdinen egokitasuna ebaluatu eta EAeko Natura 2000 Sarearentzat eraginkorrena dena aukeratu. Gutxienez SEBI 2010 Proiektuak proposatutako adierazlea (GUIDOS modelotik abiatuz kalkulaturakoa), eta EAen proposatzen den baso zatiketaren adierazlea (F) baloratu beharko dira.</p>
Jarraibideak	<p>19) Neurriarekin lotuta, txanda amaierara iritsi diren masetan, adinez zaharrenak direnetan edo bertako espezedun behe basoa duten masetan, kanpoko landareetan ordezkaketei lehentasuna emango zaie.</p>

3. emaitza	Bertako basoen egitura eta eraketa hobetu da.
<p>Neurriak</p>	<p>«Basa fauna eta landaretzarentzat balioa duten elementu natural, kultural eta geomorfologikoen inbentario geoerreferentziatu irekiarekin» zerikusia duten dokumentu honetako neurriak aplikatuko dira.</p> <p>20) Plan hau indarrean dagoen lehenengo bi urteetan, Hernio-Gazumen dauden hainbat mota eta azpimotatako bertako baso-masa onenak identifikatuko dira, eta Garapen Naturaleko Eremu (GNE) izendatuko dira, gutxienez bertako basoaren azaleraren % 20 lortu arte.</p> <p>21) Garapen Naturaleko Eremu (GNE) gisa izendatu ez diren baso pribatuak baliabide naturalen Ustiapen Estentsiboko Eremu izendatu. Baso horietan ustiapenak baimendu ahal izateko, aldeztu aurretik baso-kudeaketa jasangarriko planak idatzi beharko dira; eta plan horietan ezarriko da zer ustiapen egingo den, dokumentu honek adierazten duenaren arabera, dagokionean LGPrako ezarritako laguntza maximoak aplikatuz.</p> <p>22) Tresna honen indarraldiko lehen bi urteetan baso-sailek hartutako azaleraren % 30 identifikatzea, gehienez, eta baso-ustiapen intentsiboko eremu (UIE) gisa jartzea, betiere lekua zaintzeko helburuekin bateragarria bada. Gainerakoa Berrezartze Ekologikoko Eremua izango da, eta helburua basoa lehengoratzeko. Beraz, egungo landaketak mozteko txanda iristen denean, ezingo da eman laguntza publikorik espezie exotiko berriak landatzeko, edo beste jarduerarik bat egiteko, helburua jatorrizko basoa berreskuratzea ez bada.</p> <p>23) Basoen «naturaltasun adierazlea» definitu eta jarraipen protokoloa ezarri. Adierazle honek gutxienez ondorengoak jaso beharko ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> ○ Basoko hegaztien egoera eta joera. ○ Koleoptero saproxilikoen kopurua eta dibertsitatea. ○ Egur hilaren bolumenaren eboluzioa. ○ Estratu bakoitzeko espezieen dibertsitatea. ○ Kanpoko espezieen eta kanpoko espezie inbaditzaileen dentsitatea. <p>24) Zutik edo lurrean dagoen hildako egur kantitatea ebaluatu.</p> <p>25) Egurrerako erabiltzen den hildako egurraren bolumena estimatu eta eskaerak, helburu bezala jarri den 20m³/ha egur hil kantitatea mantentzea arriskuan ez jartzeko erregulatu.</p> <p>26) Harizti eta pagadi barnean zuhaitziak edo beste landare exotikoak lokalizatu eta gutxika horiek kentzeko programa ezarri, espezie inbaditzaileei lehentasuna emanaz, jabetza-akordioarekin.</p> <p>27) Oso itxiak diren pagadietan (Alkiza, Lizarbakarra erreka-Hernalde- eta Endaitz Burutik Urdanesira- Alkiza), masen altura bereko diametroa duten zabalgunek irekiko dira, azaleko lurzorua duten zonaldeak aukeratuz eta eraitzako egurra lurrean pilatuta utziz. Soilguneen dentsitate egokia aukeratuko da masa bakoitzaren tamainaren arabera.</p>

<p>Arauk</p>	<p>28) Baso Inbentarioa eta Baso Antolamendu Proiektuek basoen naturaltasuna kalkulatu ahal izateko adierazlea eduki behar dute, eta baita beraien egitura eta biodibertsitatearen kontserbazio egoera baloratzen lagunduko duten baso ekosistemen egitura biologiko eta funtzionalen informazio esanguratsu eta nahikoa ere. Horrez gain, hobetzeko proposamenak barneratu beharko dituzte, biodibertsitatearen alde egiteko neurrien gaineko aholkularitza eskaini eta jarraipen programa eraginkorrek ezarri.</p> <p>29) Basoak antolatzeako proiektuak ingurumen aldetik ebaluatuko dira eta helburuak, adierazle neurgarriak eta neurri espezifikoak izango dituzte, basoetako biodibertsitatea babesteko, naturaltasun eta osotasun ekologikoa hobetzeko eta ingurumen zerbitzuen prestazioa bermatzeko. Neurri horiek zehaztuko dira behar izanez gero ingurumen kontratuetan edo jabe pribatuekin adosteko kontserbazio akordioetan sartzeko moduan. Baso-antolamendurako proiektu horiek laguntza publikoak jasotzen dituztenean, gutxienez laguntza horien % 40 neurri espezifiko horietara bideratu beharko dira.</p> <p>30) Basoei eragiten dien beste edozein plan edo proiektuk biodibertsitatearengan izan ditzakeen eraginak ebaluatu egingo ditu Natura 2000 Sarearen ingurumen-organok, eta ebaluazio organo hori proiektuaren sustatzailearekiko independentea izan beharko da, biak administrazio publikoa diren kasuan.</p> <p>31) Landa Garapenerako Programaren laguntzak jasotzeko, Basoen Gestio Iraunkorreko tresna honetako neurriek bat etorri behar dute plan honetan ezarritakoarekin. Horretarako, eremua kudeatzen duen organok eman behar dituen baimenak gorabehera, Natura 2000 Sarearen ardura duen ingurumen-administrazioak egin beharreko nahitaezko txosten loteslea eskatu beharko du sustatzaileak.</p>
<p>Jarraibideak</p>	<p>32) Egurra ateratzeko zuhaitzak markatzea beharrezkoa den kasuetan, pagoen adarrak lepatuko dira ahal den neurrian. Hauek egon ezean, baso barneko zuhaitz exotikoak aukeratuko dira, eta besterik ezean, ingurumen balio txikiena duten zuhaitzak aukeratuko dira, hau da, zuhaitz zaharrak, lepatuak, helduak, zulodunak, pizidoen zuloak dituztenak edo epifitak dituztenak moztea ekidingo da.</p> <p>33) Orokorrean, basoko zabalgunek txikien birpopulaketa ekidingo da, bere helburua ekotono konplexuak sortzea den kasuetan izan ezik.</p> <p>34) Genetika galera eta kutsadura genetikoa ekiditeko, ahal bada, errehabilitazio edo hobekuntza lanetan inguruko lursailetatik edo erreferentziatzko lekuetatik hartutako landare eta haziak erabiliko dira.</p> <p>35) Baso Antolamendu proiektuetako ikuspuntu ekosistemiko eta multifuntzionala aplikatuko da eta erabaki guztiak bertako basoetako ekosistemen biodibertsitatea mantentzera zuzenduak egongo dira. Landa Garapenerako Programan helburu ez-produktiboetarako aurreikusitako neurriak, dokumentu honen helburuak lortzen laguntzen badute, % 100ean finantzatuko dira, edo gutxienez, Natura 2000tik kanpo jasotzen diren laguntzek baino % 20 gehiago jasoko dute.</p>
<p>4. emaitza</p>	<p>Zuhaitz zaharren eta hildako egurraren presentziaren garrantziaz jabetu.</p>
<p>Neurriak</p>	<p>36) Lapatutako zuhaitzen jabeentzat, bertako populazioarentzat eta publiko orokorrarentzat informazio kanpainak eta hitzaldiak aurrera eramanean (LIFE+ Biodibertsitatea eta Lapatuak neurrian sartuta -D7 eta D8)</p>

3.- LARREAK

Kontserbazio egoera

- *Brometalia Festuco-Brometaliadun* kare substratu gaineko larre lehor erdi-naturalak. (CodUE.6210)

227 ha hartzen dituzte, batez ere Herniozabal, Aizpel eta Gatzumeko hegoaldeko magaletan; noizbehinka larre, zelai, iradi, otadi eta txilardiak tartekatuz mosaikoak sortzen dituzte, eta zaila suertatzen da bere azalera zehaztea. Beste 79 ha-tan, Gutxitxo, Leizaberi, Hernio, Hernio Txiki, Endaitz Buru eta Zelatungo lepoan, hainbat orkidearen presentzia antzematen da, lehentasunezko azpitaldea kontsideratzera iritsi gabe.

EAEko Natura 2000 Sarean habitat honen % 7 osatzen du.

Ez da higadura lokalizaturik antzematen, Iturriotzik Zelatungo lepora doan xendan eta larreetatik doazen hainbat bideetan izan ezik.

Aurrekotik abiatuta eta datu kuantitatiborik ezean, landa azterketetan ikusi da, orokorrean, larreek egitura egokia dutela, berezko egituraren nahiko antzekoa. Mosaiko egitura zabalek, adierazgarriak izango ziren espezieentzat baldintza egokiak sortzen dituzte. Ez dago hauen gaineko inpaktu puntuak esanguratsurik eta presioak baxuak dira. Antzematen den arrisku bakarra, abeltzaintzaren beherakada eta sektorearen zailtasunak dira; baina ez dirudi epe laburrera larria izan daitekeenik.

Larre mesoxerofilo kaltzikolak: Ona-aldekoa

Azalera	Egitura	Funtzioak	Etorkizunerako aurreikuspenak
Ona-aldekoa	Ona-aldekoa	Ona-aldekoa	Ona-aldekoa

- Altuera gutxiki sega belardi atlantiko urriak (CodUE.6510)

Gaur egun 11 esparru kartografiatu dira, guztira 28 ha, Hernio-Gazumeren azaleraren % 1 besterik ez. Hala ere, benetako azalera txikiagoa izan daiteke. Pertsetobietako zonaldere mugatzen da ekosistema mota hau.

Kontserbazio egoera identifikatzea zaila suertatzen da, oso arraroa baita bi larre ezberdinek lore konposizio berdina edukitzea. Ez dago lore eraketa horri buruzko daturik, ezta bere egitura eta polinizatzaileen eta gainerako egitura trofikoetan, kutsadura organikoan eta ur eta lurzoruan, larreen erabilerak eragin ditzaiken aldaketa eta inpaktuei buruzkorik ere.

Gaur egungo erabilera oso urrun dago habitat honetan berezkoa den lore dibertsitate altua mantentzeko beharko litzatekeen horretatik. Oraindik baserri batzuetan larreak aprobeztatzen badira ere, zaila da larreen kontserbazio egokia mantentzeko moduko praktika kulturaletara itzultzea.

Abeltzaintzaren eta baserriaren gainbehera ikusita, etorkizuneko aurreikuspenak ez dira onak, eta hau da Euskadiko habitat konprometituena.

Sega-belardiak: Desegokia-txarra

Azalera	Egitura	Funtzioak	Etorkizunerako aurreikuspenak
Desegokia-kaltegarria	Ezezaguna	Ezezaguna	Desegokia-txarra

2013ko apirilaren 30a, astearta

- *Agrostis* eta *Festuca*-dun mendiko larre azidofiloak (CodUE.6230*)

KBEko larre hauen azalera 120 ha-koa da, hau da, eremuaren azaleraren % 5, hainbat esparrutan sakabatuak, Indo, Indotxikieta, Leizaberi, Sagatseta, Hernioko iparraldeko magala, Zelatungo lepoa inguruan, Herniozabal, Zelaitxiki eta Mendigain. Herniozabalen eta Zelatungo lepoan larre mesoxerofilo kaltzikolak ageri dira mosaiko eran.

Hernio-Gazumeko KBEak EAEko Natura 2000ko *Agrostis* eta *Festuca* larreen % 3 osatzen du.

Kontserbazio egoera egokia dela dirudi, Herniotik Irumugarrietara eta Urkidira doazen magaletako zonalde puntualetan izan ezin, non ganadua presentzia eskasagatik eboluzioa antzematen den. Bestalde, fenomeno hauek oso lokalizatuak daude larre azido hauek hartzen duten azalerarekin erlazionatuta, eta hauek etorkizun ona aurreikusten zaie.

Larre azidofilo kantauriarrak: Ona-aldekoa			
Azalera	Egitura	Funtzioak	Etorkizunerako aurreikuspenak
Ona-aldekoa	Ona-aldekoa	Ona-aldekoa	Ona-aldekoa

Baldintzak

Gipuzkoako Mendien 7/2006 Foru Arauak erregulatzen du artzaintza, abeltzaintza eta baso erabilerekin bateratuz, baina zuhaitz zonaldeen mantentze eta birsortzeari dagokion kasuetan artzaintzari lehentasuna emanez.

Fertilizanteen erabilerak, lur-lantzeak eta medeatzeak, larre naturalen eraketan eragin oso negatiboa dute. Kareztatzeak, berrereinketek edo ongarrizteak intereseko larre seminaturalengan duten eragina ez da ezagutzen, ezta baimenak emateko garaian faktore hori kontuan hartzen ote den ere. Kaltegarria dela ikusiko balitz, praktika horiek bertan behera utzi beharko lirarteke.

Hernio-Gazumeko zonalde irekietan jatorri antropikoko hainbat elementuren presentzia esanguratsua da, hala nola pareta, harrizko horma, borda edo uraskak, eta hauek larre eta sastrakadien dibertsitatea areagotzen dute. Modu berean, heskai biziak ere biodibertsitatea areagotzen dute eta konektatzeko eta babesteko toki aproposa dira hainbat animalientzat. Hainbat heskai natural kartografiatu dira, tradizionalki barrutiak banatzeko erabili izan direnak eta bertako landaretza potentziaz osatuak zeudenak. Batzuetan animaliei bazkatzen emateko erabiltzen ziren, lizarrak eta baita sastraka arantzadunak edo dentsuak ere, hala nola hurritzak, astigarrak, elorriak... askotan murru txikiak eratzen dituztenak. Hala ere, gaur egun KBEan ez dago nahikoa heskairik, eta askotan alanbrezko itxiturek ordezkatu dituzte, batez ere, Pertsetobietan.

Suaren erabilerak lurzoruan eragina izan dezake, espezie aitzindariak bultzatuz. Suak lurzoruan sortzen dituen benetako ondorioak ez dira ezagutzen, batez ere, higaduran eta larreen kalitatean. Modu deskontrolatuan aplikatuz, lurzoru organikoa erretzen du, higadura prozesuak sorraraziz. Gipuzkoako Mendien 7/2006 Foru Arauak ere lurzoruaren erabilera erregulatzen du eta sua erabili ahal izateko, administrazioaren baimena behar da.

Soilgune edo eremu irekietako habitatan, abeltzaintza kudeaketaren eta hegazi sarraskijaleen populazioen artean erlazio argia dago; gainera, larre eta belardi mosaikoek hainbat fauna taxoiarentzat habitata osatzen dute, hala nola, kiropteroek eta beste espezie intsektujale xumeagoek ere bertan dute elikadura zonaldea. *Festuco-Brometalia* larreek eta larre azidofiloek iradi eta txilardietarantz eboluzionatzen dute abeltzaintza ez bada nahikoa. Ardi abeltzaintza erabilera estentsiboa da larre hauen erabilera, eta gaur egungo abeltzaintza karga egokia dela dirudi. Baina Herniotik Irumugarrietara doan magala iradi dentsu osatuta dago, ziurrenik abeltzaintza karga gutxitu izanagatik. Beste zonalde batzuetan, Urkidin, esaterako (UTM X 569400, Y 4780800), larre hauek pagadirantz eboluzionatzen ari direla ikusten da, sastrakadi dentsuak kolonizatu baitute.

Sistema orekan mantendu ahal izateko karga aproposa zein den ez da ezagutzen. Belaunaldien ordezkapen falta dela eta, abeltzain kopurua jaitea aurreikusten da. Aurreikusten den jaitsiera honek egutegia eta errotazioa modu egokian planifikatu behar izatea ekarriko du, kontserbazioa eta bazkak bateratuz. Horretarako beharrezkoa da gaur egungo bazkatokiei eta abelburuen beharrei buruzko datuak edukitzea. Horrez gain, KBEan dauden abelburu kopurua ere ez da ezagutzen, ezta abeltzaintza larri eta xeheen banaketa ere. Gainera, aziendaren banaketa espazioan eta denboran ere ez da ezagutzen, eta honek, hainbat zonalde beraien erabilera ahalmenen gainetik erabiltzen aritea eragin dezake. Kontserbazioan erabiltzen diren ohiko inbentarioen legenda berdina erabiltzen duen KBEko kartografia egokirik ere ez dago.

Larre azidofiloak bazkatu gabe utziko dira udazken amaieratik udaberri hasierara. Horrela, neguan ganadurik ez egoteak sastrakadiaren gaineko presioa txikituko du, nahiz eta behorrek urte guztian zehar presioa egiten duten. Udaberriari ganadu xehea sartzeak, larre dentsuak kontrolatu ahal izatea dakar, sustrai beretik hazten diren hainbat zurtoinen dentsitatea kontrolatzea ahalbidetuz. Ganadua udazkenara arte mantentzea orkideentzat onuragarria da.

Ondorioz, artzaintza estentsiboa ezinbesteko tresna da larre eta sastrakadien mosaikoa kontserbatzeko, eta beraz, ezinbestekoa da artzainen lankidetzaren aurreikusten duen larreen antolamendurako plana idaztea.

Sega belardietan, sega, mindekin ongarritzea eta bere kontserbazio egokirako gehiegizkoa den artzaintza intentsiboagoa tartekatzen dira. Sega belardietan aurrera eramaten den maneiak, interes komunitariokoak ez diren beste larreen antzekoa den lore eraketa dakar, eta batzuetan mosaikoak nahaspilatu egiten dira. Bestalde, kontuan hartu behar da intentsifikazioagatik edo bertan behera uzteagatik berriki jasaten ari diren eboluzioa.

Giza erabilerak erregulatzen dituen larre eta sastrakadi mosaikoetan eboluzio prozesu azkarrak eta oreka dinamiko eta ezegonkorak ematen dira. Bertan beharrezkoa da kudeaketa dinamikoa aurrera eramatea. Kudeaketa horretan garrantzitsua ez da argazki finko bat ateratzea, baizik KBEa osotasunean hartuta, habitat multzoen kantitate orokorra mantentzea, horretarako, bizitzeko habitata baino mosaikoa behar duten espezieen elkarbizitza ziurtatuz. Modu honetara ez da bitarteko trantsizio egoeraren presentziara mugatuko. Hortaz, mosaikoen kudeaketa dinamikan eboluzio libreko orban batzuk utziko dira, beste orban batzuetako errehabilitazio ekintzekin konpentsatuz. Gainera, kudeaketa dinamiko honek, mosaiko horren sortzaile diren ekintzen baldintza sozial eta ekonomikoak hartu beharko ditu kontuan.

Euskal Herriko Natura Babesteko 16/94 Legeak motordun ibilgailuen zirkulazioa debekatzen badu ere, larreei eta sastrakadieiei eragiten dieten gurrpil arrastoak ageri dira zonalde batzuetan.

EBko Landa Garapenerako Araudia ezarri, larre eta sastrakadien izan ditzaketen balio natural altuko abeltzaintza zonaldeen proposamena bidali beharko zaio Batzordeari; proposamen hori, adierazle egokia edukiz gero, garrantzitsua izan daiteke babestutako guneen arteko konektibitatea mantentzeko eta hegazti sarraskijaleak bezala lurralde zabaletan bizi diren espezieen kontserbazioa ziurtatzeko.

Larre eta belardien izaera pribatuak kontserbazioaren alorretik antolamendua zaildu egiten du, nahiz eta Euskadiko Landa Garapen Jasangarrirako Programan (2007-2012) kudeaketarako elkarketak bultzatzeko neurri eta tresnak aipatzen dituen, dibertsitate biologikoa kontserbatzeko: aholkularitza zerbitzua, mendiko larreen aprobetxamendu estentsiboa, larre eta belardien biodibertsitatea hobetzeko erlezaintza, intereseko sega belardien kontserbazioa eta heskaiak jartzea eta mantentzea paisaia hobetzeko. KBEan neurri hauen aplikazioari buruzko daturik ez dago, baina dokumentua idazteko garaian jabeekin eta tokiko entitateekin izandako elkarrizketetan ikusi da ez dutela neurri horien berri, beraz, aplikazio hutsala izango zutela uste da.

Batasuneko araudian, landa garapenerako programetan urtero aldaketak sar daitezke, programaren helburuak modu eraginkorragoan erantzun duela ikusten bada.

Helburu eta neurriak	
3. helburua	Sega belardi eta mendiko larreen azalera adierazgarria mantentzea, eboluzio fase ezberdinetan, orban txiki eta irregularrez eratutako mosaiko heterogeneoekin.
3.1. emaitza	<p>Gutxienez ondorengo azalera mantentzen dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> - <i>Festuco-Brometalia</i> kareharrizko larre lehorrak, orkideadunak edo orkidearik gabeak(CodUE. 6210): 306 Ha. - Mendi larre azidoak(CodUE. 6230*): 120 Ha. - Sega belardi pobreak (CodUE. 6510): 28 Ha.
Neurriak	<p>37) Larre eta sastrakadien garapen espaziala eta tenporalaren jarraipena egiteko protokoloa ezarri irudi aereoan bitartez eta landa kontrolerako partzelak jarri.</p> <p>38) Larreen antolamendurako plana idatzi, abeltzaintza zonaldeak, ganadu karga azalerako eta ganadu mota, artzaintza egutegia, errotazio erregimena, azpiegitura eta larreen hobekuntzarako inbertsioak eta planean zehaztutakoa kontrolatzeko prozesua adieraz dezala gutxienez.</p> <p>39) Larre eta sastrakadi azalera oinarritzko elementu kontsideratu edo babes beziko erregimenean sartu, «balio natural altuko abeltzaintza zonaldeak» bezala, eta Europako Batzordeari helarazi eta LGPan barneratzeko.</p> <p>40) Landa garapenerako programaren «mendiko larreen aprobetxamenduari buruzko ikerketak» eta «artzaintza bultzatzeko» neurrien intzidentzia eta eraginkortasunaren analisia egin, biodibertsitate adierazle neurgarriak erabiliz, eta dagokionean, bere erabilera hobetzeko gomendioak igorri.</p> <p>41) Larreak kontserbazio egoera onean mantentzeko ingurumen kontratuak sustatu eta abeltzaintza estentsiboak sortutako eragin positiboak saritu. Kontratu hauek lehentasuna izango dute, gehienbat abeltzaintzara dedikatzen diren us-tiaketek.</p> <p>42) Segalarrak mantentzeko kontratuak izenpetu, gutxienez jabeen % 50ekin edo egun inbertariatuta dagoen azalaren % 75arekin. Izenpetu aurretik, lursailaren egoera, kalitatea, eraketa eta larreen hedapena ezagutzeko ikerketa zehatz bat egingo da. Sega belardiak mantentzeko kontratuek ondorengo konpromisoak jaso beharko dituzte:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Laborantzetan, konifera landaketetan edo larrearen landaretza konposizioa eraldatu dezakeen beste edozein erabileratan larreen transformaziorik ez egitea. • Soilik belar mozketak bat edo bi egitea, lehena landareen loratzearen ostean (maiatza bukaera ekaina). • Simaurrarekin neguko ongarritze bakarra egin. • Landare inbaditzaileak desagerrarazteko baimendutako erradikazioan izan ezik, herbizidarik ez erabiltzea.

	<ul style="list-style-type: none"> • Ez bazkatu edo urtean soilik birritan bazkatu, behin udazkenean eta beste behin modu ahulagoan udaberrian. • Soilik pobretutako eremuak berreskuratzeko erein. Horretarako sega belardietako ohikoak diren 4 espezie erabiliz, horretarako lekadun eta graminea espezieen erabilera gomendatzen da. • Ez luberritu ezta surik erabili ere. • Azalera ez gutxitu azpiegiturak egiteagatik, materiala pilatzeagatik edo bestelako arrazoiengatik. <p>43) KBEko heskaien berreskurapen plana egingo da bertako zuhaitz eta zuhaixka espezieak landatuz, batez ere, honako zonalde hauetan:</p> <ul style="list-style-type: none"> ○ Indo, 300 m. ○ Zelatungo lepoa, 300 m. ○ Gutxitxo, 350 m. ○ Leizeberri, 400 m. ○ Sagain zelaiak, 250 m. ○ Pertsetobieta, 1000 m. ○ Mañakagaina, 450 m.
Arauk	<p>44) Oinarrizko elementu diren larre eta txilardietan eta babes bereziko erregimenean daudenetan ez dira horien egitura alda dezaketen ekintzak baimenduko, hobekuntza eta leheneratze ekologikoa helburutzat duten eta ingurumen-administrazio eskudunak emandako aldeko txostena duten kasuetan izan ezik.</p> <ul style="list-style-type: none"> ○ karea botatzea, berrereitea, ongarritzea edo herbizidak aplikatzea ○ sastrakadia kontrolatzeko sua aplikatzea ○ landaketak egitea ○ fertilizanteak, herbizida edo bestelako ongarrri fitosanitarioak erabiltzea <p>45) Artzaintza antolatzeke planean zehazten diren zonaldeetatik kanpo eta bertan agertzen diren baldintzapean ez bada, artzaintza debekatuta dago.</p> <p>46) Modu egokian justifikatutako arrazoiak egonez gero eta beste aukerarik egon ezean, larre horien hedapenean eragina izan dezaketen edo oinarrizko elementu diren sastrakadien % 10 baino gehiago kaltetzen duten ekintzak baimenduko dira, baina, egindako kaltea konpentsatzeko, ahalik eta gertuen dauden eta kaltetua izan den zonaldearen funtzio ekologiko bera beteko duten elementu berriak sortu edo berreskuratu beharko dira, kaltea edo eragina sortu aurretik, KBEaren barnean kantitate orokorra mantentzeko.</p> <p>47) Baso-landaketa pistetatik kanpo ibilgailuekin zirkulatzea debekatuta dago.</p>

Jarraibideak	<p>48) Sastrakadia birsortzeko, kontrolatzeko edo larreak berreskuratuzeko ekintzetan, sastraka-garbitzea egingo da eta batez ere, honako zonaldeetara zuzenduko da: ganadu kargaren bitartez berreskuratutako larreak mantentzea bermatu ahal izango den zonaldeak edo zuhaitz espezieek kolonizatuzeko mehatxua agertzen dutenak. Garbiketarako modu planifikatua egingo dira jabeekin akordioak lortuz, eta ondorengo jarraibideak hartuko dira konguan:</p> <ul style="list-style-type: none"> ○ Garbiketarako gehienez 10 urtero egingo dira. ○ Asko jota 1Ha-ko azalera izango du eragina eta sastrakadiaren murrizpena ezingo da % 30a baino txikiagoa izan. ○ Sastraka-garbiketarako egin gabeko zonalde txiki batzuk mantendu behar dira eta sastrakadi eta larreen arteko muga irregularra egingo da. ○ Ondoren, moztutako materiala kendu egingo da. <p>49) Sastrakadiaren kontrola eta birsortzera zuzenduriko suaren erabilera aparteko metodoa izango da.</p> <p>50) Artzaintza planean adierazitako tokietatik kanpo artzaintza ekiditeko neurri eta kontrolak zorrotzko dira, batez ere bertako basoa birsortzera bideratutako azaleretan, ganaduaren jabeen isunak jarritz. KBEean aplikatu daitezkeen egungo Landa Garapen Jasangarriko Planean ageri diren eta bertako helburuak betetzen lagunduko duten neurrien artean lehentasunak eta aldeko egoerak ezarri ahal izango dira.</p> <p>51) Lehentasuna eta aldeko baldintzak jarri ahal izango dira Landa Garapeneko Programan egun jasota dauden neurrientzat, KBEaren esparruan aplikatzen badira eta tresna honen helburuak lortzen laguntzen badute.</p> <p>52) Aipatutako laguntzez gain, neurri horien aplikazioa bermatzeko laguntza berriak edo laguntzen moldapenak bultzatu ahal izango dira.</p> <p>53) Zuhaitzetan ez da kimaketa zorrotz egingo, eta horrela zuhaixka luze eta zabalak edukitzeko joera izango da. Martxoa eta abuztua bitartean, biak barne, ez da zuhaixken maneirik egingo. Fruitu-emate garaian kimaketaren bat eginez gero, ahalik eta fruitudun adar gehien uzten saiatuko da.</p>
---------------------	---

4.- FAUNA SAPROXILIKOA

Kontserbazio egoera

Hernio-Gazumen dauden espezie gehienentzat, ez dago hauen egoera eta populazioen joerari buruzko datu kuantitatiborik.

Alkizan, Hernion, *Rosalia alpina* ikusi da.

Horrez gain, KBEtik oso gertu *Lucanus cervus*, *Limoniscus violaceus*, *Osmoderma eremita*, *Cerambyx cerdo* eta *Elona quimperian*-ren presentzia ere aipatu da, beraz, baliteke KBEan kontserbazio-egoera onean dauden habitat naturaletan ere agertzea. *Gnorimus variabilis*-en presentzia ere aipatu da Hernio-Gazumen; espezie hau *Osmoderma eremita*-rekin agertu ohi da, beraz, espezie hau ere agertu daitekeela adierazten du.

Lucanus cervus eta *Cerambyx cerdo*, katalogaturik eta Habitat Zuzentzarauaren II eranskinaren barne

badaude ere, EAEn ez daude mehatxatuak, eta ezta estatu mailan ere, non ugariak diren.

Bestalde, oraingoz bere kontserbazio egoera estimatu edo beraien habitaten existentziaren arabera beraien presentzia aurreikusi edo beraien beharrian ekologikoak betetzeko baldintza egokiak ote dauden ikusi besterik ezin da egin. Zentzu horretan, ez dira egokitzen ikusten bere habitataren baldintzak, ez baitago lurlean edo zutik zuhaitz heldu edo zaharrik.

Baso-aprobetxamenduek behera egin izana eta oinarri tekniko horretako neurriak aplikatuz, eta espezie saproxilikoaren populazioen kontserbazio-egoera bermatzea helburu duen Gipuzkoako Foru Aldundiari emandako LIFE proiektuari esker, epe luzera zuhaitz zaharrak ugarituko direla aurreikusten da, lepatuak sortuko direla eta zutik edo lurlean hildako egur hila ugarituko dela aurreikusten da. Hortaz, espezie hauen etorkizuneko aurreikuspenak onak dira; nahiz eta aldaketa hauek motel gertatuko diren.

Rosalia alpina, Cerambyx cerdo, Lucanus cervus, Osmoderma eremita, Limoniscus violaceus, Elona quimperiana: Desegokia-kaltegarria

Azalera	Egitura	Funtzioak	Etorkizunerako aurreikuspenak
Ezezaguna	Ezezaguna	Desegokia-kaltegarria	Ona-aldekoa

Baldintzak

Intereseko espezie xilofagoek larba egoera, bertako espezie hostoerorkorren hildako egurrean igarotzen dute. Hernio-Gazumen baso misto hostoerorkorren presentzia ez da oso ugaria, baina badaude zuhaitz zahar eta hildako zuhaitz sakabanatu batzuk, oso handiak eta zulodunak, gehienetan haritzak, ornogabe saproxilikoaren presentzia faboratzen dutenak. Aipatzekoa da, gainera, zuhaitz lepatuen presentzia, zaharrak izateaz gain, hainbat zulo, altxatutako azala etab. dutenak. Hala ere, zuhaitz lepatu horiek mantentzen ez da jarraitu, eta hortaz, oin asko arriskuan daude.

Hala ere, Hernio-Gazumen espezie hauen habitat potentziala nabarmen jaitsi da, baso hostozabalak gutxitzen eta larreak ugaritzen joan baitira, eta ondoren asko koniferek ordezkatu dituztenak. Gainera, gaur egun oraindik dirauten basoek zuhaitz gazteak dituzte, askotan mozketak zorrotzen ondoren ernaberrituta-koak eta adin berdinekoak, non zuhaitz zaharrik ez dagoen.

Rosalia alpina ohikoa da pagadietan eta baso mistoetan eta beste hostozabaletan ere agertu daiteke. Larba egoera diametro lodiko hildako egurrean igarotzen du, batez ere lurreko enbor errietan, baina baita adar lodietan edo zutik dirauten zuhaitz zaharretan ere. Eguzkiak jotzen duen hildako egurra nahiago izaten du, eta arrautzak erruteko garaian egiten diren egur pilaketak edo ateraketek eragin diezaioke.

Lucanus cervus-en larbak batez ere usteldutako hostoerorkor zaharren sustrai, enbor edo oinetan garatzen dira, batez ere *quercus*-etan. Basoetan, batzuetan, gehiegizko estalkia ikusten da, izan ere, koleoptero saproxiliko horientzat bigarren mailako espezieen, soilguneen eta ekotonoen presentzia ezinbestekoa baita, lore eta fruituez elikatzen diren helduentzat.

Osmoderma eremita eta *Limoniscus violaceus* larbak, deskonposatzen ari diren enborretan garatzen dira, horien zuloetan pilatzen diren egur hondakinekin eta deskonposatutako hondakin begetalekin, ondoekin, gorotzekin edo intsektuen hondakinekin pilatzean mikrohabitata sortuz. Honen guztiaren ondorioz humus itsurako geruza lodia eratzen da, eta bertan *Gnorinus variabilis* eta *Elater ferrugineus* bezalako beste hainbat mehatxatutako espezie garatzen dira bertan. Helduak beste ingurune batzuetan ere bizi daitezke, beharrian trofiko ezberdinak baitituzte, eta askotan landareak behar izaten dituztelako (basoetako soilguneetan, pisten ertzetan... aurki ditzaketenak), baina arrautzak errutera lehen aipatutako habitat horietara joaten dira. Helduek duten desplazatzeko ahalmena oso urria da; horrela, *Limoniscus violaceus*-en kasuan hainbat generazio zuhaitz berean garatu daitezke, eta *Osmoderma eremita* populazioak oso isolatuak egon daitezke, oin helduak edo lepatuak dauden unada baten inguruan isolatuak. Horregatik, zuhaitz zaharren presentzia urriari, hauen sakabanaketa gehitu behar zaio, kudeaketan kontuan har dadin. Bi espezieentzat ezinbestekoa da zuhaitz lepatuak mantentzea.

Gipuzkoako basoak mantendu, hobetu eta garatzeko laguntza erregimena ezartzen duen 77/2008 Foru

Dekretua eta «Biodibertsitatea eta lepatuak» LIFE+ proiektua positiboak dira espezie hauen kontserbaziorako.	
Helburu eta neurriak	
4. helburua	Mehatxatutako koleoptero saproxilikoek populazio egonkorra mantendu.
4.1. emaitza	Mehatxatutako koleoptero saproxilikoek gaur egungo egoera ona modu zehatzean eta egokian ezagutzen da.
Neurriak	<p>«Basa fauna eta landareentzat balioa duten elementu natural, kultural eta geomorfologikoen inbentario georreferentziatu irekiari» aplikatzeko neurriak eta arauak eta «Basoak» atalean hildako egurrari dagozkion neurriak aplikatuko dira.</p> <p>54) Banaketa eta kopuruari dagokionez, gaur egungo kontserbazio-egoera definitu.</p> <p>55) Habitat azalera aproposa kontuan hartuz, erreferentzia gisa balioko duen egoera egokia definitu.</p>
4.2. emaitza	Espezieentzat habitat egokiena izango litzatekeena ziurtatu da.
Neurriak	<p>56) Baso barneko zabalguak kartografiatu eta trantsizio bandak sortuko dituzten bigarren mailako espezieak laguntzeko kasuan kasuko lanak zehaztu. Definitutako lanak aurrera eraman.</p> <p>57) Zonalde eguzkitsuetan lepatetik eratorritako pago enbor eta adarren pilaketa iraunkorrak egin.</p>
Jarraibideak	<p>Faunarentzat interesekoak diren bertako zuhaitz hostoerokorren aldeko eta egurrerako zuhaitzak markatzeko irizpideen gaineko 14 eta 31. jarraibideak kontuan hartuko dira.</p> <p>58) Enbor oin guztiak eboluzio naturala jarrai dezaten utziko dira.</p> <p>59) <i>Rosalia alpinaren</i> erruteak babesteko, Maiatza eta iraila artean egurra ez da pilatuko, hau azkenean erretiratu egin behar bada.</p>
3. emaitza	Espezie saproxilikoek garrantzia zabaldu.
Neurriak	60) Administrazio teknikekin edo landa langileekin egiten diren koordinazio edo programazio bileretan eta formazio kurtsoetan, dagokionean, zuhaitz zaharren eta hildakoen garrantzia azpimarratuko da, bertako populazioarekin egiten diren ekintzetan zabaldu dadin.

5.- HEGAZTI SARRASKIJALEAK**Kontserbazio egoera**

Sai arrearen munduko populazioaren % 75 inguru Espainiako lurraldean dago (Aierbe *et al.*, 2002) eta Europako populazioen % 88, beraz, Espainiar Estatuak espezie honen mundu mailako kontserbazioan zeresan handia du. EAEn 1999an 484 bikote kontatu ziren, horietatik 66 Gipuzkoan, non 2008an 178 bikote izatera pasa ziren, populazioa nabarmen handituz. Hernion 25 bikote daude, Belako harkaitza inguruan, eta berriki mendebaldeko harkaitzian ere kokatzen dira, 2008ko datuen arabera.

Sai arrearen populazioa nabarmen jaitsi da Espainian. Espainian, Europako sai arreen populazioaren % 33 hazten dela uste da. EAEn 37-38 bikote zenbatu dira, gehiengoa Araban; Gipuzkoako ugale-populazioa 9 bikotekoa da; horietatik bik Hernio inguruan hazten dituzte kumeak, batek KBEko iparraldeko harkaitz batean eta beste batek hegoaldean, harrobi batean. Bi espezie horiek Hernion bilatzen dute elikagaia.

Aipatu behar da, noizbehinka bada ere, EAEn eta Gipuzkoan urria den miru gorria (*Milvus milvus*) ere ikusten dela KBEan.

Sai arrea eta sai zuria Habitat Zuzentarauko I. eranskinean sartuta daude; Sai arrea «Interes berezikoa» kontsideratzen da bai estatu mailan, baita EAEn ere, eta miru gorria «zaugarria».

Espezie hauek larreratzeko habitata egokia dela kontsideratzen da, izan ere, erregimen estentsiboko ganaduak erabiltzen dituen hainbat zabalgunek baitaude.

Inguruko lurretan sai zuriak jasan duen gainbehera ikusita, eta noizbehinka gertatzen diren pozoitzeak ikusita, etorkizuneko aurreikuspenak kezkarriak dira. Pozoiak sai arrear ere eragiten badu ere, bere populazioa Gipuzkoan, EAEn eta inguruetan hazten ari dela ikusi da, azken urteetan egonkortuz.

Sai arrea: Ona-aldekoa

Azalera	Egitura	Funtzioak	Etorkizunerako aurreikuspenak
Ona-aldekoa	Ona-aldekoa	Ona-aldekoa	Ona-aldekoa

Sai zuria: Desegokia-kaltegarria

Azalera	Egitura	Funtzioak	Etorkizunerako aurreikuspenak
Ona-aldekoa	Ona-aldekoa	Ona-aldekoa	Desegokia-kaltegarria

Baldintzak

Sai zuria, eta batez ere sai arrea azalera zabaletan ibiltzen dira, egunean zehar distantzia handiak egitera iritsiz. Horregatik bere kudeaketa dokumentu honek hartzen duen lurraldea baino eskala handiagoan planteatu behar da. Sai zuria, gainera, espezi migratzailea da eta bere populazioa kanpoko arriskuengatik egon daiteke arriskuan, eta beraz, EAEn egiten den kudeaketatik kanpo geldituko litzateke.

Elikagai bila egiten dituzten desplazamendu handiek, hilkortasun arriskua areagotzen dute, arriskua sor diezaieketen elementu ugari dauden zonalde humanizatuak igaro behar baitituzte (kable elektrikoak, parke eolikoak, ehiza zonaldeak...).

Hernio eta inguruetatik hainbat linea elektriko igarotzen dira eta tamaina ertaineko hainbat hegaztiren eusteko toki arriskutsua dira, esaterako miruentzat, sugezalearentzat (*Circaetus gallicus*), arrano txikiarentzat (*Hieraaetus pennatus*) edo zapelatz arruntarentzat (*Buteo buteo*). Gaur egun arazo hauek ekiditeko neurri eraginkorrak daude, erraz aplikatu daitezkeenak.

Sai zuriaren gainbeheraren arrazoi nagusia pozoitzeak direla antzeman da. 2002an Basa Faunaren Erreku-perazio Zentroan pozoitutako 3 sai zuri tratatu ziren eta 2004ean bi gehiago. EAEn 57 animaliarengan eragin zuten 14 pozoitze kasu aipatzen dira 1990-2003 artean, Cano *et al.* 1990 eta 2005 artean 11 sai zuri eta 47 sai arre aurkitu ziren pozoituta. Hortik aurrera, alegian, Gipuzkoan, 2007an sai zuri baten heriotza antzeman zen habia batean. Sarraskijaleen pozoitze kasu hauek EAerekin mugakide diren lurraldeetan ere gertatzen dira.

Saiek ganaduarengan eragindako ustezko «erasoengatik» izaten dira pozoitzeak, batez ere erditze garaian. Sai zuri oso zaugarria da pozoien aurrean, gorpuak antzemateko ahalmen handia du eta. Gaur egungo araudiak mendietako ganadu gorpuak kentzea derrigortzen du, eta elikagaia asko gutxitu da sarraskijaleentzat. Baliteke elikagai falta horrek eraginda gertatzea ganadu ahularen aurkako eraso horiek, horri buruzko informazio zehatzik ez badago ere. Beste Autonomia Erkidego batzuetan, hegazti hauentzat elikatze puntuak jarri dira, non hildako ganadua edo hilgegietatik datozen animalia hondarrak botatzen diren.

Ehiza-garaian tirokatutako sai arreen kasuak ere aipatzen dira, Aierbe *et al.* (2002).

Orokorrean, ganaduaren beherakadak habitaten aldaketa ekartzen du, sastrakadiak eta ondorengo baso berrien sorrera ekarriz; gainera, hegazti sarraskijaleentzat elikagaia jaistea dakar. Ez dago KBEko eta inguruetako ganaduaren karga zehatzari buruzko daturik, ezta bere heriotza tasarik ere, eta datu horiek beharrezkoak dira zonaldeko eskaintza trofikoaren ezartzeko.

Gai hori, gainera, sai arreen hegaldi zabala kontuan hartuta, beste eskala batean landu beharko litzateke.

Arestian esandakoaren ondorioz, dokumentu honetan nekazaritzako paisaiak kontserbatzeko eta abeltzaintza estentsiboari laguntzeko proposatzen diren neurriek ondorio positiboak izango dituzte espezie horien gainean.

Helburu eta neurriak

5. helburua	Sai arrea eta sai zuriaren presentzia ziurtatu, habia egiten duten puntuetan babes zorrotza ezarriz, elikadura eta larreratze azalerak kontserbatu eta heriotza ez naturalen kausak ekidin.
5.1. emaitza	Hegazti sarraskijaleen heriotza ez naturalen kausak detektatu eta ekidin dira.
Neurriak	<p>61) Elektrokuzio eta talka arriskua kontuan harturik, KBEaren inguruko elektrizitate-hariteriaren azterketak egin. Dagokionean beharrezkoak diren zuzenketa proposamenak eta hauek martxan jartzeko egutegia idatziko dira, sei urte baino lehen betetzeko.</p> <p>62) KBEan eta inguruan aurkitu diren pozoitze bidezko heriotzen jarraipen protokoloa ezarri.</p> <p>63) Fauna errekueratze zentroetara iristen diren aleen heriotza eta zaurien kausak aztertu, eta baita non jaso diren ere, heriotza ez naturalen puntu beltzen mapa egiteko, eta horrekin batera, arriskuak gutxitzeko aholkuak igorri.</p> <p>64) Jarraipen protokolo zehatz bat ezarriko da Sai arreen ugaltze populazioan txertatutako hegazti gazteen jarraipena egiteko, helduen hilkortasun adierazle posible gisa.</p> <p>65) Ganaduaren kontrako saien erasoaren salaketak gertatuz gero, erabat argitu</p>

2013ko apirilaren 30a, asteartea

	beharko dira, horretarako berariazko albitari forentseak kontratatuz. Sai arreek ganaduarengan eragindako kalteen konpentsazio-mekanismoek ari- nak eta azkarrak izan beharko dute.
Arauak	<p>66) KBEan eta bere inguruan egiten diren aprobetxamendu eta erabilerek oinarriko espezieen eta babes bereziko erregimenean dauden espezieen populazioak kontserbatzen dituztela ziurtatu behar da, eta orokorrean ez dira ondoren datozen ekintzak baimenduko, aldeko ingurumen inpaktu adierazpenak hala onartzen ez badu behintzat:</p> <ul style="list-style-type: none"> ○ Habia egiteko edo larreratzeko tokiak eraldatzen dituen, baliabide trofikoak gutxiagotzen dituen edo bizi-zikloa osatzeko beharrezkoa den edozein elementu kaltetzen duen edozein ekintza. ○ -Heriotza ez naturalak ugaritu edo desplazamenduetarako baldintzak kaltetzen dituen edozein ekintza. <p>67) Ugaltze zonaldeetan aurrera eramaten diren erabilerek Sai arrea eta Sai zuriaren ugalketan kalterik ez sortzeko beharrezkoak diren baldintzak barne hartu beharko dituzte.</p>
Jarraibideak	68) KBE inguruan proposatutako parke eolikoaren eraginez azterketan, haize erro- tek (aerosorgailuek) Sai arrearen eta Sai zuriaren hegaldian sor dezaketen eragina kontuan izan beharko da. Horretarako, desplazamendu korridoreak aztertuko dira.
2. emaitza	Gutxienez larre eta sastrakadi estentsiboen 740 ha mantendu dira.
Neurriak	<p>Sastrakadi eta larreen kontserbaziorako ezarritako neurri, jarraibide eta arauak aplikatuko dira.</p> <p>69) KBEan eta inguruan balio handiko zonaldeak mugatuko dira, espezie sarraskijaleentzat ezinbestekoak diren habitat estentsiboak kontuan harturik; eta Hernio-Gazume eta Natura 2000 Sareko beste guneen arteko lotura errazten duten zonaldeen aukeraketa egingo da.</p>
3. emaitza	Bi espezie horientzat eskaintza trofikoa ziurtatu da.
Neurriak	<p>70) Ondorengoa zehaztuko duten ikerketa egingo da:</p> <ul style="list-style-type: none"> ○ Abelburu kopurua KBEan eta bere inguruan dauden natur balio handiko zonaldeetan bazkatzen duten espezieko. ○ Ganaduak era estentsiboan eta aurreko zonalde horietan igarotzen duen denbora. ○ Heriotza tasa. ○ Gorpuen tratamendua eta beraienganaino nekrofagoak nola iristen diren. ○ KBEaren inguruan 20 kilometroko erradioan dauden abeltzaintza estentsiboko etxolen eboluzioa. ○ Inguruan dauden janlekuak eta elikagai puntuak. ○ Janleku edo elikatzeko puntu baten beharra, eta kokalekurako proposamena, zein baldintzapean funtzionatuko duen eta nola kudeatuko den.

6.- KIROPTEROAK**Kontserbazio egoera**

Alde batetik, EAEn 20 kiroptero baino gehiago dago (kopuru zehatza ez dago garbi, berriki *Pipistrellus pipistrellus* bi espezieetan banatu baita eta *Myotis nattereri* hirutan). Bestalde, kiroptero edo saguzarrek orain dela urte gutxi arte ez dute inolako interesik piztu, beraz, KBEan dauden populazioei, motei eta joerei buruzko informaziorik ez dago.

EAEn dauden espezieetatik, batzuk habitat zehatz bati lotuta daude eta beraz ez da aurreikusten Hernio-Gazumen egon daitekeenik; baliteke ondorengo saguzar espezieak egotea: *Rhinolophus ferrumequinum*, *R. euryale* eta *R. hipposideros*, *Myotis myotis* eta *Plecotus auritus* eta *P. austriacus*, *Nyctalus leisleri* eta *N. noctula*, *Barbastella barbastellus* eta *Miniopterus schreibersii*.

Egiaztatu da, gainera, *R. ferrumequinum*, *B. barbastellus* eta *P. pipistrellus* saguzarrek ere desplazamenduak egiten dituztela basoak konektatzen dituzten heskaien lerroak jarraituz; KBEko heskaien presentzia aldakorra da: iparraldean nahiko eskasa da eta ia desagerrarazi dira, Pertsetobieta eta Indo inguruetan; Larraul, Alkiza, Albiztur eta Hernialdeko lurretan heskaien presentzia handiagoa da, eta oraindik badaude zuhaitz lerro batzuk.

Baltsa, errekasto eta maiz istiltzen diren lurzoru inguruetan ibili ohi dira, bertan presa ugari topatzen dute eta; baina toki hauek ere urriak dira Hernio-Gazumen.

Nyctalus leisleri baso saguzarra da, zuhaitz zaharren zirrikituetan babesten dena, eta *N. noctula* eklektikoagoa da ehiza habitatari dagokionez, eta zonalde humanizatueta eta baso bazterretan ikus daiteke. Azken hau ez da KBEaren inguruan aipatu, baina babesleku batetik bestera hegan egiteko ahalmen handia ikusita eta bere habitat gustukoak ikusita, KBEan egon daitekeenik ez da baztertzen.

Hernio-Gazumen dauden barrunbe eta kobazulo ugariak, kobazuloetako saguzarra den *M. schreibersii* aipatzekoa da, gutxienez udako babesleku gisa erabili ditzakeena; litekeena da, gainera, *R. ferrumequinum*, *R. euryale*, *R. hipposideros*, *M. myotis*, *P. auritus*, *P. austriacus* eta *Barbastella barbastellus* (Galán, 1970) bezalako espezieak ere egotea.

Habitat Zuzentarauak kiropteroen espezie guztiak IV. eranskinean sartu ditu «babes zorrotza behar duten interes komunitarioko espezie» gisa. Gainera, ziurrenik Hernio-Gazumeko KBEan dauden zazpi espezie, II. Eranskinean sartu dira, eta hauek babesteko beharrezkoa izango da kontserbazio bereziko zonaldeak izendatzea (*Rhinolophus euryale*, *R. ferrumequinum*, *R. hipposideros*, *Barbastella barbastellus*, *Miniopterus schreibersii* eta *Myotis myotis*). Gainera, «Interes bereziko» edo «Zaurgarri» gisa izendatuta daude estatuan, EAEn bezala, «desagertzeko zorian» bezala izendatuta dagoen *Rhinolophus euryale* izan ezik.

Banaketa, populazio eta joerari buruzko daturik ez dago ia, eta gutxiago oraindik basoko saguzar espezieei buruzkoa; izan ere, hauen azterketa zailagoa gertatzen da, eta jarraipen protokolo berezia behar da.

Espezie honen etorkizuneko aurreikuspenak estimatzea nahiko espekulatzaila izango litzateke, populazioen menpe egoteaz gain, bere babesleku eta elikaduraren menpekoea da eta. Gainera, ikusi da populazioek jaisteko joera daramatela bai Estatuan baita azterketak egin diren Autonomia Erkidegoetan ere, *Plecotus auritus* eta *Plecotus austriacus* saguzararen populazioek izan ezik.

Baliteke *R. euryale* espezie urria izatea, izaera termofiloa duelako, nahiz eta Hernio-Gazumen ugariak diren zabalgunen zatikatuetan eta baso bazterretan ere ibiltzen den.

Basoko kiropteroei dagokionez, esan beharra dago ez dagoela zuhaitz zulodunak, estratu bertikal anitzak, ekotonoak, zabalgunek, hildako egur pilaketak...dituen baso zahar esanguratsurik. *M. myotis*, *R. ferrumequinum*, *R. hipposideros*, *N. noctula*, *N. leisleri*, *P. auritus*, *P. austriacus* (eklektikoagoa habitata aukeratzeari dagokionez, eta humanizatutako inguruetan ohikoagoa), eta *B. barbastellus* dira habitat hori beharrezko dutenak. Horregatik, kualitatiboki ez egokitzat hartzen da espezie hauentzat habitata.

M. schreibersii saguzarrak barrunbe naturalak aukeratzen ditu babesleku gisa. Hernio-Gazumen ez da bere presentzia aipatu, baina itsas mailatik 1100 m inguru arte iristen dela ikusita eta Hernion babesleku ugari izango litzukeela ikusita, pentsa daiteke KBEan presente egongo dela.

Myotis myotis*, *Rhinolophus hipposideros*, *Rhinolophus euryale*, *Rhinolophus ferrumequinum*, *Rhinolophus euryale*, *Miniopterus schreibersii*, *Plecotus auritus*, *Plecotus austriacus*, *Nyctalus

2013ko apirilaren 30a, asteartea

<i>Ius noctula, Nyctalus leisleri, Barbastella barbastellus</i> : Ezezaguna			
Azalera	Egitura	Funtzioak	Etorkizunerako aurreikuspenak
Ezezaguna	Ezezaguna	Ezezaguna	Ezezaguna
Baldintzak			
<p>KBEan dauden espezieei, kopuruari, populazioen tamainari eta habitat egokiak dituzten zonaldeei buruzko informazioa eskasa da, baita kumeak edukitzeko edo negualdia igartzeko babesleku eta elikatze tokiei buruzkoa ere.</p> <p>Zentzu horretan, tresna honetan biltzen diren neurriek, hainbat espezierentzat egokiak diren kalitatezko habitatak ziurtatzea dute helburu; hala ere, kiropteroen gaineko mehatxu orokorrak daude, batez ere horien habitaten eraldaketa, bioziden erabileraren ondorioz aukera trofikoa gutxitzea edo gizakiak zuzenean edo zeharka eragindako heriotzak, KBEaren mugetatik haratago eragin dezaketenak.</p> <p>Hildako egur eta materia organiko kopuru handiek, saguzarren harrapakin diren espezieak egotea ahalbidetzen dute, eta beraz, ikusi da hainbat suts espezieren ugaritasuna eta basoko kiroptero batzuen presentzia (esaterako <i>Barbastella barbastellus</i>) elkarri lotuta doazela.</p> <p>Zuhaitzetako zulo eta pitzadurak ezinbestekoak dira babesleku gisa, hortaz, zuhaitz helduak edo lepatuak ezinbestekoak dira KBEan. Zuhaitz mota honetan sortzen diren inguruneetan, saguzarrek jaten dituzten hainbat intsektu garatzen dira. Azken hamarkadetan zuhaitz lepatuetan ez da inolako mantentze lanik egin, hortaz, adarrak gehiegi handitu eta egitura deskonpentsatu dute, arriskuan jarriz.</p> <p>Horrez gain, pizidoen eta kiropteroen artean ere erlazioa dagoela ikusi da. Pizidoek enborretan zuloak egiten dituzte, eta ondoren zulo horiek hainbat saguzarrek erabiltzen dituzte; okil berdea (<i>Picus viridis</i>) eta okil handia <i>Dendrocopos major</i> dira aipatzekoak. Horrekin guztiarekin, okilen habiak dituzten zuhaitzak zaharrak daudenez, egurrerako erabiltzeko markatzen dira.</p> <p>Ekotono aberats, zabalgunek eta larreen presentziak basoko saguzarren eta hain zorrotzak ez diren beste saguzarren eskaintza trofikoa areagotzen dute. KBEan hainbat ekotono badaude ere, zonalde batzuetan pagadi eta lareen arteko kontaktua oso bortitza da, batez ere Errezilen eta Larraulgo hego-mendebaldeko bazterrean. Baso zabalguneei dagokionez, aipatu behar da Larraul eta Alkizako baso zabaletan, biodibertsitatea areagotzen duten soilgunerik ez dagoela ia.</p> <p>Heskai edo basotxoek presentziak kiroptero espezie askorentzat mesedegarria da, beraien desplazamenduetarako elementu linealak aukeratzen baitituzte, toki irekiagoak ekidinez. Horren harira, aipatu behar da KBEko ipar-mendebaldeko zonaldeetan, eta bereziki, ipar-ekialdean ez dagoela heskairik, eta paisaia hau, bestalde, landazabal atlantikoko ohiko paisaia da.</p> <p>Ur fluxuak eta ur puntudun habitatak aukeratu dira, izan ere presa ugari baitaude, batez ere baltsa eta ur geldoko zonaldeak. Ondo garatutako erriberako landaretzako zonaldeetan espezie kopurua areagotu egiten da. KBEan badago erreka bat, Zelatungo erreka, eta beste batzuk KBEko kanpoaldean, Mandabe erreka, Altzolarratz eta Arraia errekek. Baso naturalen barnean baltsa edo istiltzen diren lurzorurik ba ote dagoen ez da ezagutzen.</p> <p>Habitatari dagokionez, esan daiteke bertako hostozabalak koniferen landaketaz ordezkatzeko ez dela kiropteroen kontserbazioarekin bateragarria, hauek sistema simple eta homogeenak baitira, eta adin berdineko aleak dituztenak, non presa espezieen biomasa txikia sortzen den eta babesleku gisa funtzionatu dezaketen zulorik ia ez dagoen; aipatu behar da KBEaren zuhaitz zonaldeen % 27 landaketak direla.</p> <p>Hernio-Gazumen ugariak diren larre eta sastrakadiak ehizarako toki aproposa dira kiroptero espezie batzuentzat.</p> <p>Urki eta sahats unada batzuk badaude; zuhaitz hauen egurra oso gogorra ez denez, gazte direnetik zulo naturalak sortzen dira hauen enborretan, pagadietan ez bezala, beraz, heldutasun batetik aurrerako urki</p>			

2013ko apirilaren 30a, asteartea

eta sahas unadek edo zuhaitz sakabanatuek, interes nabarmena dute.

Kiroptero gehienek beste gordeleku batzuk ere erabil ditzakete, hala nola borda, eraikin arrasto, zubi, meategiak... Pentsetobieta, Segain zelaiak, Zelatungo lepoa, Iturriotz edo Hernioko aterpeko eraikin eta bordetan ez da saguzarren presentziarik antzeman. Eraikin hauek eraberritzeak edo egurra tratatzeak hainbat espezieren ugaltze edo babes tokiengan eragin dezake.

Leize, kobazulo eta meategi zuloetarako sarreran itxitura egokiak erabili beharko liriateke, bestela saguzarren babesleku gisa erabiliko lituzkete; ez da ezagutzen Hernio-Gazumeko barrunbe horietan jarri diren itxiturarik, eta baliteke etorkizunean hori egiteko aukera baloratzea.

Kiropteroei babesa eskaintzeko barrunbe faltak habia-kutxekin konpondu da. Hala ere, neurri erabilgarria bada ere, interes handiagoa dute barrunbe naturalek, tamaina handiko zuhaitzak mantentzeak, edo zuhaitz lepatuek. Bestalde, habia-kutxak ez dira irtenbide nahikoa baso landaketetarako, bertan faktore mugatzailea saguzarren presa falta baita.

Baso landaketetan airezko ekipo bidez intsektizida edo tratamendu kimikorik ihinzatu ote den ez da ezagutzen. Ihinztapen horiek tratamendu generikoa dira, eskaintza trofiko guztiari eragiten diona, eta berriki debekatuak izan dira, salbuespenak salbuespen, 2009/128/CE Zuzentarauaren arabera.

77/2008 Foru Dekretuak eta fauna saporxilikoa kontserbatzeko Gipuzkoako Diputazioari emandako LIFE programak zuhaitz lepatuak mantentzen laguntzen du eta Alkizan 300 ha-ko pagadi azidofiloa eskuratu da, mehatxatutako kiroptero populazioen mesederako izan daitekeena.

Helburu eta neurriak

6. helburua	Gutxienez gaur egun KBEan dauden kiropteroen populazio egonkorra mantendu, babesleku eta elikagaia eskainiko dieten mikrohabitat eta elementuen presentzia bultzatu.
6.1. emaitza	KBEko kiroptero espezien banaketa eta kopurua nahiko ezagutzen da.
Neurriak	71) KBEan bizi diren saguzar espezieen ikerketa bat aurrera eramatea, ugaritasuna estimatuz, zonalde garrantzitsuak eta gordelekuak identifikatuz eta espezieek egiten duten habitataren erabilera ikertuz eta banaketa kartografiatu. KBEan eta inguruan dauden eraikinak berrikusiko dira eta basoan bizi diren saguzarrei buruzko ikerketa egokia egingo da.
6.2. emaitza	Kiroptero espezieen babeslekuak eta elikatzeko tokien azalera areagotu dira.
Neurriak	Barrunbeen, basoen azaleraren, naturaltasunaren, egituraren eta konplexutasunaren hobekuntzarako neurriak aplikatuko dira. 72) Bertako espezieen zuhaitz gazteetan, batez ere pagadietan, mota ezberdinetako babes kutxak ezarriko dira. Kutxa horiek monitorizazioa erraztuko dute.
Arauak	73) Landaketen kudeaketarako beharrezkoa den kasuetan, pestizida espezifikoak erabili ahal izango dira, beti ere baso, erribera, berro, landaretza natural eta erreketatik 10mko segurtasun distantzia errespetatuta, baso, erribera, heskai edo trantsiziozko landaretza naturalari eragin gabe.
Jarraibideak	74) Larre inguruetan dauden berroak errespetatuko dira, baita borden inguruan dagoena ere, batez ere hildako enbor hilak badira. Erriberako zuhaitzak ziurtatzea ere garrantzitsua da. Dauden larreak kontserbatuko

2013ko apirilaren 30a, asteartea

	<p>dira, konifera landaketak ekidinez.</p> <p>75) KBEan edo bere inguruko eraikinen zaharberritze lanak egin aurretik saguzar kolonien existentzia dagoen jakiteko ikuskapenak egin beharko dira. Presentzia dagoela ikusiz gero, egurraren tratamenduan saguzarrentzat kaltegarriak diren produktu kimikoak ekidin beharko dira, batez ere organokloratuak. Berrikuntza eta hobetze lanek, saguzarren gordelekuak mantentzea bermatuko dute.</p> <p>76) Sarbide errazeko lekuetan sagu zaharren presentzia ikusiz gero, neurri preventibo egokiak hartu edo ezarri beharko dira (itxitura egokiak, zaintza berezia, ...).</p>
--	--

BABES BEREZIKO ERREGIMENEAN HABITAT NATURALAK, FLORA ETA FAUNA

Habitatak	Kontserbazio egoera	Aldeko neurriak
Landaretza kasmofitikodun aldapa arrokatu kaltzikolak (Cod.UE.8210)	Ona-aldekoa	37, 39 a 41, 44, 45, 46, 48, 50, 81
Europar txilardi lehorrak (Cod.UE.4030)	Ona-aldekoa	44, 45, 48 a 50, 81
Otedun txilardi endemiko oromediterraneoak (Cod.UE.4090)	Ona-aldekoa	44, 45, 48 a 50, 81
<i>Alnus glutinosa</i> eta <i>Fraxinus excelsior</i> (<i>Alno-Padion</i> , <i>Alnion incanae</i> , <i>Salicion albae</i>) duten ibai basoak. (Cod.UE.91E0*)	Ona-aldekoa	14 a 16, 19, 20, 28, 29
Espezieak	Kontserbazio egoera	Aldeko neurriak
<i>Narcissus bulbocodium</i> subsp. <i>Citrynus</i>	Ezezaguna	37 a 39, 44, 45, 48 a 50, 81
<i>Narcissus asturiensis</i>	Ezezaguna	Pyrenaicum 37 a 39, 44, 45, 48 a 50, 78, 79, 81
<i>Aconitum variegatum</i> subsp.	Ezezaguna	Pyrenaicum 37 a 39, 44, 45, 48 a 50, 78, 79, 81
Gorostia (<i>Ilex aquifolium</i>)	Ezezaguna	9, 15 a 18, 20, 22, 29, 35, 78, 79, 81
Hagina (<i>Taxus baccata</i>)	Ezezaguna	9, 15 a 18, 20, 22, 29, 35, 78, 79, 81
Loina (<i>Chondrostoma toxostoma</i>)	Ezezaguna	81

2013ko apirilaren 30a, asteartea

Txantxiku arrunta (<i>Alytes obstetricans</i>)	Ezezaguna	43, 44, 48, 78, 79, 81
Musker berdea (<i>Lacerta bilineata</i>)	Ezezaguna	43, 44, 48, 53, 81
Arroka sugandila (<i>Podarcis muralis</i>)	Ezezaguna	44, 48, 53, 81
Eskulapio sugea (<i>Zamenis longissimus</i>)	Ezezaguna	37, 39, 43, 44, 48, 53, 81
Zapelatz liztorjalea (<i>Pernis apivorus</i>)	Ezezaguna	16, 17, 66, 67, 68, 81, 84, 85
Miru gorria (<i>Milvus milvus</i>)	Ezezaguna	37, 39, 41, 42, 45, 61 a 63, 65 a 68, 81, 84, 85, 85 a 89
Miru beltza (<i>Milvus migrans</i>)	Ezezaguna	37, 39, 41, 42, 45, 61 a 63, 65 a 68, 81, 84, 85, 85 a 89
Mirotz zuria (<i>Circus cyaneus</i>)	Ezezaguna	37, 39, 41, 42, 45, 66, 68, 81, 84, 85
Arrano txikia (<i>Hieraaetus pennatus</i>)	Ezezaguna	37, 61, 65, 66, 68, 81, 84, 85
Belatz handia (<i>Falco peregrinus</i>)	Ezezaguna	66, 67, 68, 81, 84, 85
Zata europarra (<i>Caprimulgus europaeus</i>)	Ezezaguna	8, 9, 14, 16, 17, 24, 25, 56 a 59, 74, 81
Antzandobia (<i>Lanius collurio</i>)	Ezezaguna	43, 48, 53, 74, 81
Etze txinboa (<i>Sylvia undata</i>)	Ezezaguna	37, 39, 43, 48, 53, 74, 81
<i>Myotis emarginatus</i> saguzarra	Ezezaguna	1 a 7, 14, 24, 25, 71 a 76, 81

Babes bereziko espezie eta habitaten galera edo kaltea ekiditeko:

1. Basoei eragiten dien beste edozein jarduerak izan ditzakeen eraginak ebaluatu egingo dira Natur Ondarearen eta Biodibertsitatearen 42/2007 Legean eta aplikatu beharreko legerian ezarritakoari jarraituta.
2. Kontserbazio egoera onean mantentzeko edo egoera horretara iristeko, aurretik gaur egungo egoera definitu beharko da, eta hau ezinezkoa den kasuetan, estimazio kualitatibo fidagarrien bitartez egin beharko da.
3. Ondoren, aldizka ebaluatu beharko da prozedura estandarizatuen bitartez. Horrela, EAEko Natura 2000 Sareko beste tokietako emaitzekin konparatu ahal izango da, orokorrean sare osoaren kontserbazio egoera estimatu ahal izateko. Prozedura hauek planaren jarraipen planean barneratuko dira eta espezie edo habitat bakoitzarentzat, talde taxonomikoentzat

edo beste taxoi elkarketentzat egin ahal izango dira, beti ere espezie bakoitzaren bakarkako ebaluaketa ahalbidetzen bada.

4. «Babes erregimen bereziko habitat edo espezie» bat egoera txarrean dagoela zehazten denean, oinarritzko elementu ego kudeaketaren helburu izatera pasako da. Honen ondorioz, zuzenean, dagozkion kontserbazio neurriak aplikatuko zaizkio. Hala ere, «Babes erregimen bereziko habitat edo espezie» kontsideratzen jarraitu ahal izango da, beste oinarritzko elementuren batentzat planean aurreikusten diren neurriak bere kontserbazio egoera ona lortzeko nahikoak direla ikusten bada. Kasu horretan, neurri horiek aurreko taulan zehazten dira.

KUDEAKETAN LAGUNTZEKO TRESNAK

1.- BIODIBERTSITATEAREN EZAGUTZA ETA INFORMAZIOA

Baldintzak

Habitat eta espezieei buruzko nahikoa informazio ez izateak kontserbaziorako politika aktiboen plangintza eta inpaktuen ebaluazio egokia baldintzatu egiten du eta ondorioz, prebentzioa zailtzen du.

Kasu askotan ezinezkoa da datu kuantitatiboen bidez espezieen kontserbazio egoera zehaztea. Leku hau Natura 2000 Sarean barneratzea eragin duten espezie eta habitat natural bakoitzaren egungo eta aldeko egoeraren definizioa, biodibertsitateari buruz dugun ezagutza hobetzeko aukera eta kudeaketa antolatze behar bat izateaz gain, legezko eginkizun bat ere bada eta EAE, estatu eta Europa mailan egoeraren ebaluazioak egin ahal izateko informazio estandarizatu hedatzeko prozedura arinak erabiltzera behartzen du.

Hala ere, fauna eta floraren ezagutza oraindik urria da, eta ezberdintasun handiak daude talde taxonomikoen artean; beraz, kasu askotan ezinezkoa da espeziearen kontserbazio egoera kuantitatiboki zehaztea. Informazioa badagoen kasuetan ere, informazioaren kalitatea ez da ona, eta zaharkituta dago, eta ez dago serie historikorik populazioen joerak eta dinamikak ebaluatu ahal izateko. Horregatik, elementu askorentzat ezartzen den lehenengo neurria, kontserbazio egoera definitzea izango da. Horregatik, elementu askorentzat ezartzen den lehenengo neurria, kontserbazio egoera definitzea izango da.

Habitaten kasuan ere informazioa ez dago osatua eta ezinezkoa suertatzen da datu horietatik abiatuz ebaluaketarik gitea.

EAEko landaretza mapa (EUNIS, 1:10.000) nahiko zehatza da habitat natural gehientzat; ez, ordea, habitat natural txikienez eta Hernio-Gazumen babestu behar diren espezie askoren ziklo biologikorako garrantzitsuak diren mikrohabitatakat osatzen dituzten elementu natural eta kulturalentzat. Gainera, ez dago mapa hori eguneratzeko modurik, eta beraz, urte gutxitan kudeaketara tresna baliogabe bilakatu da, lurraldeak duen eraldaketa natural eta antropikoen dinamikagatik. Bestalde, 1:10.000 eskalako lanean detektatzen ez diren hainbat habitat txiki daude. Beste habitat batzuk denborarekin modu naturalean edo gizakiaren erabileragatik eraldatuak izan daitezke, eta ez dira mapan eguneratu. Horregatik, tresna zaharkitua suertatuko da mapa hori.

EAEko eskumen erregimena kontuan izanda, non administrazio batzuek eremu berean eskumenak egikaritzen dituzten, prozedura arinak eta efikazak ezarri behar dira, habitatetan, beren banaketetan eta azaleretan egon daitezkeen aldaketen informazioa modu egokian transmititzeko.

Egun, Eusko Jaurlaritzak kudeatzen duen Euskadiko Biodibertsitatearen Informazio Sistemak Autonomia erkidego mailan egindako Hernio-Gazumeri buruzko proiektu, inbentario, eta abarren bidez jasotako dibertsitate ekologikoari buruzko datu ugari dituen arren, oraindik ere oso barreiatutako informazioa eta kudeatzaileentzat irismen zailekoa den informazioa badago.

Bestalde, merkatuan balioa duten Hernio-Gazumeko zenbait produkturen finantza-balioez gain, ez dago bertako biodibertsitate osoaren balorazio ekonomikorik. Bertako ekosistemek sortzen dituzten ingurumen zerbitzuak eta biodibertsitateetatik eratorritako onurak ez dira kuantifikatuak izan. Biodibertsitatearengan

2013ko apirilaren 30a, asteartea

<p>eragina izan dezaketen ekintzei buruzko erabakiak hartzerako orduan biodibertsitatea kontuan har dadin eta gizarteak, biodibertsitatearen galerak gure ongizate mailan eta gure ekoizpen sistemaren babesean duen eragin zuzena uler dezan, balorazio hauek ezinbestekoak dira.</p> <p>EAEEn ez dago kable elektrikoek hegaztiengan sor ditzaketen kalteak gutxitzeko neurriak biltzen dituen arau elektroteknikorik. Horrek, neurri prebentibo egokiak hartzea eta korridore ekologiko eraginkorrak diseinatzea zailtzen du.</p>	
Helburu eta neurriak	
7. helburua	Hernio-Gazumeko biodibertsitatearen kontserbazio-egoera eta biodibertsitatea galtzea edo kaltetzea eragin dezaketen arrazoiak behar adinako zehaztasun-mailaz ezagutzea, biodibertsitateari epe luzera eustea bermatzeko neurriak diseinatze aldera.
7.1. emaitza	Hernio-Gazumeko dibertsitate biologikoa eta osotasun ekologikorako esanguratsuak diren leku edo elementu natural edo kulturalen eta kontserbatzeko interesgarriak diren habitat guztien kartografia eguneratua eskura dago.
Neurriak	<p>77) Adituek egindako behaketa berrietatik eratorritako informazioaren bidez EUNIS Habitaten mapa eguneratzeko protokoloa definitu. Honakoak izan beharko dira kontuan:</p> <ul style="list-style-type: none"> ○ Gizakiaren esku-hartzea edo eboluzio naturalaren ondorioz gertatutako aldaketak. ○ Honakoak izan beharko dira kontuan: Gizakiaren esku-hartzea edo eboluzio naturalaren ondorioz gertatutako aldaketak. <p>78) «Basa fauna eta landaretzarentzat balioa duten elementu natural, kultural eta geomorfologikoen inbentario georreferentziatu irekia» sortu. «Basa fauna eta landaretzarentzat balioa duten elementu natural, kultural eta geomorfologikoen inbentario georreferentziatu irekia» sortu, azalera gutxiko mikrohabitata izateagatik edo bestelako arrazoiengatik EUNIS habitaten inbentarioan sartuta ez daudenekin. Inbentarioan, gainera, faunarentzat interesekoak diren basa flora, intereseko zuhaitzi isolatuak, baltsak, putzuak, istiltzen diren lurzorua, zabalgunak eta ekotonoak, trantsizio habitata, heskaiak, bordak, eroritako bordak, kobazuloak eta babeslek, elikadura edo kumeak edukitzeko toki apropos gisa erabili daitekeen edozein elementu edo Hernio-Gazumeko osotasun ekologikoarentzat onuragarria den edozein elementu sartuko da. Inbentarioan sartuko dira, gainera, herri bideak, xendak, kobazuloak, simak eta hobiak. Inbentarioak, barneratutako elementuak karakterizatu beharko ditu edo gutxienez, barneratuak izatearen arrazoiak adierazi beharko ditu.</p>
Arauk	<p>79) Elementu bat «Basa fauna eta landaretzarentzat balioa duten elementu natural, kultural eta geomorfologikoen inbentario georreferentziatu irekian» barneratzeak, elementu hau dagoen eremua «Babes bereziko eremu» izendatzea suposatuko du eta eragina izan dezaketen ekintzei buruzko ikerketak egin beharko dira eta beharrezkoa izanez gero, konpentsazio neurri egokiak ezarri beharko dira.</p> <p>80) Modu egokian justifikatua egongo balitz eta beste aukerarik egon ezean, elementuen galera edo narriadura sortuko lukeen ekintzaren bat baimenduko balitz, kaltea konpontzeko, elementutik ahalik eta gertuen honen baldintza eta funtzio ekologiko berdinak beteko dituzten elementuak ezarri beharko dira kaltea egin aurretik. Modu honetan KBEko aktibo naturalaren kopuru</p>

2013ko apirilaren 30a, asteartea

	osoa mantenduz.
7.2. emaitza	Babes bereziko erregimeneko basa espezie eta desagertzeko arriskuan dauden habitat guztien kontserbazio egoera ezagutzen da.
Neurriak	81) Babes bereziko erregimenean dauden basa espezie eta habitat guztientzat beren kontserbazio egoerari buruzko fitxa bat egingo da. Modu horretara, informazio hori modu arinean erabili ahal izango da eta Habitat Zuzentzarauko 17 artikuluan adierazten den informazio estandarizatuaren transmisioaren be-tebeharrak beteko dira.
7.3. emaitza	Hernio-Gazumeko dibertsitate biologiko osoa eta ekosistemak hornitzen dituzten Hernio-Gazumeko ingurumen ondasun eta zerbitzuen balio ekonomikoaren estimazioa eskura dago.
Neurriak	82) Hernio-Gazumetik eratorritako ingurumen zerbitzu eta biodibertsitatearen balio ekonomiko osoa kontuan izanik, Hernio-Gazumeren existentziatik eratorritako onurak kuantifikatuko dituen ikerketa egitea. Ikerketa hau zehazki lekuarentzat egin daiteke edo emaitzen transferentzia ahalbidetuko luketen metodologiak erabiliz eskala handiagoan egindako ikerketen barne. 83) Aurreko ikerketaren emaitzak bertako komunitateetan zabaldu eta interesa duten guztien esku jarri, horrela, erabakiak hartzeko orduan eta ebaluazio estratergiko eta inpaktu azterketetan kontuan har daitezten.
7.4. emaitza	KBEan eta bere ingurunean gertatzen diren basa faunaren heriotza ez naturalen puntu beltzen mapa egin.
Neurriak	84) Igeldoko Basa-Faunaren Berreskuratze Zentroan sartzen diren Hernio-Gazumeko KBEko eta inguruko basa espezieen erregistro informatikoa egingo da. Honako datuak sartuko dira: zauria edo lesioa, arrazoia eta jasotako puntuaren koordenada geografikoak. Pozoitze kasuetan, analisi toxikologiko zorrotzak egingo dira zigor ekimen eta ekimen administratiboetan baliagarriak izan daitezten. 85) Jasotako informazioarekin puntu beltzak adieraziko dituen mapa osatuko da, bertan honakoak jasoko dira: elektrizitate hariteria eta aerogeneradoreen aurkako talkak, elektrokuzioaren ondoriozko heriotzak, tiroak, pozoitzeak, harapatzeak eta heriotza ez naturala eragiten duen beste edozein arrazoi. Hiru urtero mapa hori eguneratuko da, eta plan honetan eta ondorengoetan barneratzeko neurri zuzentzaileak proposatuko dira. 86) Abeltzain, baso ustiapenetako jabe, mendi elkarte, ehiztari eta inguruan ibiltzen diren beste kolektiboetako kideei mapa egingo dela jakinaraziko zaie, beraiek ikusitakoak ingurumen administrazioko langileei adierazteko. 87) Naturaren Babeserako Komisio Nazionalak onartutako «Pozoidura Kasueta-rako Ekintzen Protokoloa» ezarri eta perituen probak egiteko aholkuak jasotzen dituen txosten tekniko bat prestatu. 88) Basa faunaren heriotza ez naturalen urteroko informea egin, hartutako neurri prebentiboak eta hauen emaitzak adieraziz, eta informe hau interesdun guzti-engana iristea ziurtatu.
Jarraibideak	89) Behin eta berriro pozoitutako amuzkien erabilera antzematen bada «Ingurune Naturean amuzki pozonduen erabileraren aurkako Estrategia Nazionalean» jasotako neurriak hartuko dira.

2.- KOMUNIKAZIOA, HEZKUNTZA, PARTAIDETZA ETA HIRITARREN KONTZIENTZIAZIOA

Baldintzak	
<p>Gobernantza egokiaren printzipioetan oinarrituz, hiritarrak informatu, entzun eta parte hartzeko eta administrazio publikoak bere kudeaketari buruzko azalpenak emateko organo eta prozedurak ezartzea beharrezkoa da.</p> <p>Kontsultatutako jabe pribatuek eta Hernio-Gazumeko erabiltzaileek ez zuten Natura 2000 Sarearen berri. Sarean sartzeko arrazoiak eta ondorioak zein diren eta administrazioak zer gestio lan egiten duen leku horietako dibertsitate biologikoa zaintzeko. Ez zuten gainera, kontserbazioaren helburuak lortzeko dauden laguntzen berririk ere.</p> <p>Ez dago interpretazio-zentrorik KBEan; beraz, gaur egun ez zaie ematen bisitariei informaziorik eremuaren eta haren balioen inguruan. Informazio-taularik ere ez dago.</p>	
Helburu eta neurriak	
8. helburua	Hernio-Gazumeko KBEan eragina duten erabakiak hartzeko prozesuetan gizartearen partaidetza bultzatzea eta KBEaren kontserbazioan hiritarren inplikazioa bultzatzea.
8.1. emaitza	Gizarteari, Hernio-Gazumeko biodibertsitatearen kontserbazio egoera, aurkako egoerak sortzen dituzten arrazoiak, honen inguruko politika publikoak eta hauen emaitzei buruzko informazioa erregulariki helarazten zaio.
Neurriak	<p>90) Ingurumen Saileko web orrian ageri den Hernio-Gazumeko KBEko informazioa herritarrentzat ulerterrazagoa egiteko eguneratze programak hobetu.</p> <p>91) Landaretza eta fauna kontserbatzeko neurriei buruzko komunikazio programa garatu eta neurri hauen eragina jasan dezaketan edo aktiboki inplikatu daitezkeen gizarteko sektoreei zuzendu. KBEari eta Natura 2000ri buruzko bi informazio-panel jarriko dira gutxienez, Zelatun eta Iturriozko tabernetan.</p> <p>92) Lurren jabeen, nekazaritza ustiatagietako titularrei eta basozainei KBEko habitat naturalen eta espezie basatien kontserbazio-egoera hobetzea erraztu dezaketan nekazaritza, ingurumen eta basoko neurrien berri emateko ekintzak antolatzea eta gauzatzea, eta ekintza horiek baliatzea jabeak, titularrak eta basozainak habitat eta espezie horien balio naturalaren garrantziaz jabeatzeko.</p> <p>93) Parte-hartze prozesuan ikusitakoaren arabera, kudeaketa-plana zaildu edo faboratu dezaketan eragile sozial eta ekonomikoak aukeratuko dira, beren ezaguerak eta gaur egun dituzten jarrerak aztertuko dira, eta plana aurrera eramateko planteatzen dituzten mugak identifikatuko dira.</p> <p>94) Oinarrizko eragile bakoitzarentzat neurri zehatzak definitu kontzeptuak modu egokian eta ulergarrian garatzeko helburuarekin; jarrera aldaketak bultzatu eta Hernio-Gazumeko biodibertsitatearentzat kaltegarriak diren jarreraren aldaketa bultzatu. Konkretuki, ondorengo proposatu beharko da: a) KBEaren onurak komunikatu. b) komunitateen eta tokiko entitateen ezaguerak eta onarpen soziala hobetu.</p>

	95) Hiritarrek KBEari eta bere helburuei buruz duten ezagutza maila, jarrera eta portaerak ikusteko aldizkako ebaluaketak egin, komunikazio, hezkuntza eta kontzientziatorako ekintzak birbideratu ahal izateko.
Jarraibideak	96) Dokumentu honen helburuekin zerikusia duten eta baliabide publikoekin finantzatuta dauden Hernio-Gazumeko lan zientifiko eta tekniko guztiak publikora aterako dira, eta hiritarrek erraz ulertzeko laburpen dokumentua eramango dute. 97) Laburpen horiek Ingurumen Saileko web orriaren bitartez zabaltzeko beharko dira, eta eskatzen dituen orori helaraziko zaizkio.

3.- GOBERNANTZA

Baldintzak

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Saila Natura 2000 Sarearen arduraduna da. Baina kudeaketa Gipuzkoako Lurralde Historikoko foru organo eskudunari dagokio, Autonomia-Elkarte Osorako Erakundeen eta bertako Kondaira-Lurraldeetako Foruzko Ihardutze-Erakundeen Arteko Harremani Buruzko azaroaren 25eko 27/1983 legearen arabera. Baina, ez dago Eusko Jaurlaritzako Biodibertsitate Zuzendaritza eta Gipuzkoako Foru Aldundiak elkarrekin lana egiten duten lan-talde egonkorrik.

Babestutako eremuaren maila ezberdinetako antolaketa tresna guztiak koherenteak izan behar dira. Bestela, bi entitateen arteko funtzio gainjarpenera eman daitezke eta ondorioz, giza baliabideen erabilera efizientzia eza eta kudeaketan eragin dezaketen kontraesanak eman daitezke.

Europar Batasuneko komisioak eta kontseiluak ebatzi dutenez, Natura 2000 Sarearen kontserbazioa planeamendu sektorialeko eta garapen sozio-ekonomikoko tresna guztietan helburu bezala barneratu behar da. 42/2007 legeak adierazten duenez, botere publiko guztiek, dagokien esparruan, ondasun naturalaren kontserbazioan eragingo duten ekintzak eta ondorioz Natura 2000 sarea, bultzatuko dituzte. Sektoreen arteko itunak bultzatzeko eta kooperazio egokia aurrera eramateko zailtasun instituzionalek planean proposatutako helburuak lortzea ekidin dezakete.

Administrazioak eta agente eta entitate sozialak dinamizatu, ekintza eta emaitzen jarraipena egin, hauei buruzko informazioa zabaltzeko eta ekintza berriak proposatu eta aurreikusitako helburuak lortzeko egin beharreko aldaketak egiteko gai den egitura bat sortzen ez bada, plan hau ez ezartzeko arriskuan aurki daitezke.

Helburu eta neurriak	
9. helburua	Organo kompetente guztien koordinazio instituzionala hobetu eta Ingurumen araudia eta zatikako araudia egokitu, dokumentu honetako helburu, neurri, jarraibide eta arauekin bat etor dadin.
9.1. emaitza	Eusko Jaurlaritzaren Biodibertsitate Zuzendaritza eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren Hernio-Gazumeko ekintzak koordinatu daitezten talde tekniko iraunkorra sortzen da.
Neurriak	98) Egungo kudeaketa-planaren garapenean lankidetzan aritzeko Eusko Jaurlaritzako Biodibertsitate Zuzendaritzaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko lan-talde egonkorra osatu Hernio-Gazumen, dokumentu honetan ezartzen diren neurriak elkarlanean aplikatzeko. Jarraipen organo hori, KBE izendatu ondoren, gehienez urtebeteko epean osatuko da.
9.2. emaitza	Planaren aplikazioa errazteko ingurumen araudi eta zatikako araudi guztia egokitzen da.
Jarraibideak	99) Hernio-Gazumeko KBeko eremuan eragina izan dezakeen edozein plan sektorialek, derrigorrezkoak diren neurri prebentibo eta minimizatzaileez gain, Natura 2000 eremu horretako biodibertsitatean eragin positibo eta ebaluagarriak izango dituzten neurriak eta planaren helburuak lortzen lagunduko duten neurriak izan beharko ditu.

ZONIFIKAZIOA

Egungo egoeraren arabera eta egitea proposatzen den kudeaketaren arabera eremu ezberdinak definitzen dira. Kontserbazio egoera zein horri loturiko kudeaketa egokitua arrazoi naturalengatik zein gizakiak eragindako arrazoiengatik denboran zehar aldatzen joan daiteke. Adibidez, posible da beharrezko berriztapen neurriak ezarri ostean, berriztapen ekologikoko eremu bat babes zorrotzeko edo garapen naturaleko eremu izendatzea. Beraz, zonifikazioa denborarekin alda daiteke.

1.- GARAPEN NATURALEKO EREMUAK (GNE)

Balio ekologiko altuko eremuak dira eta bertan lekuaren osotasun ekologikorako oinarritzakoak diren prozesu funtzionalak ematen dira. Beren barne habitat naturalak hartzen dituzte edo oso bereziak diren espezieen edo oso mehatxatutako espezieen habitatak dira.

Eremu horietan salbuespen gisa, habitaten garapena azkartzeko, bere espezieek kontserbazio egoera hobetzeko edo bere osotasun ekologikoa arriskuan jar dezaketen mehatxuak geldiarazteko intentsitate baxuko ekintzak planteatu ahalko dira. Baita ere, izaera zientifikoa, hezkuntzako edo erabilera publikokoa duten ekintzak aurrera eraman ahalko dira, beti ere, eremuaren osotasun ekologikoari eragiten ez dioten bitartean. Ekintza horiek Natura 2000 Sarearen ardura duen organoaren onarpena izan beharko dute. Ekintza horiek Natura 2000 Sarearen organo kompetenteak baimendu beharko ditu.

Plana onartu eta bi urteren buruan orain baso naturalei dagokien azaleraren % 20 mugatuko da, gutxienez; horretarako, ekologia aldetik onenak diren basoak aukeratuko dira. Garapen naturaleko zonaldeek, gaur egun Hernio-Gazumen dagoen eta potentzialki egon beharko lukeen landaretzaren baso mota eta azpimota guztien lagin eredugarriak eduki beharko dituzte. Modu berean, kategoria honetan barneratuko dira, intentsitate altuko ekintzarik behar izango ez duten berrezarritako zonalde guztiak eta baita kontserbaziorako etengabeko akordioak lortu diren jabe pribatuen basoak ere.

Garapen naturaleko zonaldeetan sartuko dira, gainera, landaretza kasmofitikodun aldapa arroka-tsua (CodUE.8210) eta turismoak ustiatu gabeko kobak (CodUE.8310), eskala-arrazoiengatik kartografiatu ezin direnak.

2.- BABES ZORROTZEKO EREMUAK (BZE)

Normalean dimentsio murrizteko eremuak izan ohi dira eta bere barne balio esanguratsuko elementu natural edo kulturalak, elementu arraroak, nolakotasun adierazgarri edo estetikoak dituztenak edo basa fauna eta landaretzaren kontserbaziorako, ziklo biologikoaren garapenerako edo gordeleku, ugaltze leku, elikagai iturri edo desplazamendu leku bezala garrantzia duten eremuak dira. Babes zorrotza eta beren inguruan aurrera eramaten diren ekintzen kontrola behar dute.

Babes zorrotzeko eremu bezala ondorengo elementuak sartzen dira:

	EB	EUNIS
Huriztiak		F3.17
Magal jariakor ez arrokatsuetako		F9.2(Y)
Erriberako haltzadi eurosiberiarrak	91E0*	G1.21(Z)
Elordi atlantiko kaltzikolak		F3.11(X)
Urkidia		G1.91

Modu berean, dokumentu hau indarrean dagoen bitartean, «basa fauna eta landaretzarentzat balioa duten elementu natural, kultural eta geomorfologikoen inbentario georreferentziatu irekian» sartuta dauden elementu edo habitat guztiak babes zorrotzeko zonaldeetat hartuko dira, 84. Neurriari jarraituz.

3.- BERREZARTZE EKOLOGIKOKO EREMUAK (BEE)

Beren balio ekologikoen, habitat naturalek eta espezieek aldaketa edo narriadura nabarmena agertzen duten degradatutako eremuak dira. Eta beren funtzionaltasuna berreskuratu, baloreen biziraupena bermatu eta kontserbazio egoera hobetzeko ekintza ezberdinak proposatzen dira.

Berrezartze ekologikoko eremu izendatzen dira zuhaitz lepatuak dituzten zonaldeak, heskaien berrezartzen zonaldeak eta gaur egun heskai eta landaketek hartzen dituzten zonaldeak; eta konkretuki, taula honetan agertzen diren habitatak:

	*Koadroan ager-
Hostozabal erorkorren beste landaketak	G1.C(Y)
<i>Populus</i> sp. landaketak	G1.C1
<i>Quercus rubra</i> landaketak	G1.C2
<i>Robinia pseudoacacia</i> landaketak	G1.C3
<i>Eucaliptus</i> sp. landaketak	G2.81
<i>Pinus pinaster</i> landaketak	G3.F(M)
<i>Pinus radiata</i> landaketak	G3.F(P)
<i>Pinus nigra</i> landaketak	G3.F(Q)
<i>Larix</i> sp. landaketak	G3.F(S)
<i>Chamaecyparis lawsoniana</i> landaketak	G3.F(T)
<i>Pseudotsuga menziesii</i> landaketak	G3.F(U)
<i>Picea</i> sp. landaketak	G3.F(V)
Konifera landaketa mistoak	G3.F(Z)
Hostozabal erorkorren landaketa gazteak	G5.72
Konifera landaketa gazteak	G5.74
Hostozabal moztu berriak	G5.81
Konifera moztu berriak	G5.82
Bertako espezieen heskaiak	FA.3

Neurri bakoitzarentzat ezarritako arrakasta irizpideen arabera zehaztuko da berrezartze lanen intentsitatea eta azalera, hortaz, plana indarrean dagoen bitartean ez da berrezartze zonalde potentzial guztiengan eragingo. Zonalde hauen barruan kartografian, ondorengo urteetan lehentasuna dutenak aipatzen dira, 15 eta 16. Neurrien arabera.

4.- BALIABIDEEN USTIAPEN ESTENTSIBOKO EREMUAK (UEE)

Lekua izendatzea eragin, osotasun ekologikoa eta ingurumen zerbitzuak ziurtatu dituzten landare-tza eta fauna espezieen kontserbazio egoera egokia bermatzeko ezinbestekoak diren aldaketa gutxi jasandako sistema natural edo erdi-naturalak barne hartzen dituzten eremuak dira. Landare-tza eta fauna espezieek produktu naturalen fluxu jarraitua eskaintzen dute eta tokiko komunitateen garapen sozio-ekonomikoaren garapenean parte hartzen dute.

Zonalde hauetan egiten diren ustiapen guztiek kontuan hartu beharko dute habitaten eta sortzen duten mosaikoen kontserbazio egokia, eta baita oinarrizko espezieen eta babes erregimen bereziko espezieen kontserbazioa ere; horrela, ezingo dira aurrera eraman habitat edo espezie hauen kontserbazio egoera kaltetzen duten ekintzak.

Baso ustiapen estentsiboko eremuak.

«Baso ustiapen estentsiboko eremu» gisa izendatzen dira baso natural guztiak, eta batez ere ondorengo taulan agertzen direnak eta hauek osatutako mosaikoak:

	EB kodea	EUNIS kodea
Pagadi azidofilo atlantikoa	9120	G1.62
Pagadi basofilo edo neutroa		G1.64
Pagadi-harizti azidofilo atlantikoa		G1.82
<i>Quercus robur</i> nagusi duen baso azidofiloa		G1.86
Bertako espezieen heskaiak		FA.3

Zonalde honetan aurrera eramaten diren aprobetxamendu guztietarako kontuan hartu beharko da oinarrizko habitat eta espezieak eta babes erregimen bereziko espezieen kontserbazio egoera onargarria mantendu beharko dela. Hala, eremu horiek aprobetxatzeko, «basoak modu iraunkorrean gestionatzeko plana» egingo da, plan honetan ezarritakoari jarraiki; gestio plan hori EAEko Natura 2000 Sarean eskumena duen ingurumen administrazioak baimendu behar du. Baimen hori edukitzeak ez du esan nahi plan horretako ekintzek edo proiektuek ez dutenik bete behar biodibertsitatearen gainean duten eraginaren inguruko ebaluazio egokiaren prozedura.

Baimen hori edukitzeak ez du esan nahi plan horretako ekintzek edo proiektuek ez dutenik bete behar biodibertsitatearen gainean duten eraginaren inguruko ingurumen-ebaluazio egokia.

Abeltzaintza ustiapen estentsiboko eremuak.

Abeltzaintza ustiapen estentsiboko eremu izendatzen dira sega belardiak, erregimen estentsiboan ganadurako erabiltzen diren pagadi eta harizti bilakaerako larre eta sastrakadiak, eta konkretuki, ondorengo habitatak eta beraien arteko mosaikoak:

2013ko apirilaren 30a, asteartea

	EB kodea	EUNIS kodea
Txilardi europar lehorrak	4030	F4.23(X)
Elorri-triskadun txilardi oromediterraneo endemikoak	4090	F7.44(Y)
Larre lehor erdi-naturalak eta substratu kalkareo gaineko sastrakadi faziesak (<i>Festuco-Brometalia</i>)	6210	E1.27
Larre lehor erdi-naturalak eta substratu kalkareo gaineko sastrakadi faziesak (<i>Festuco-Brometalia</i>) (orkidea garrantzitsuekin)	6210*	E1.26
Nardus duten formazio belarkarak, zonalde menditsueto silizozko substratuen gaineko espezie asko	6230*	E1.72
Altuera baxuko sega belardi pobreak (<i>Alopecurus pratensis</i> , <i>Sanguisorba officinalis</i>)	6510	E2.21
Manipulatu gabeko larreak eta bazkatutako larreak		E2.11
Muinoetako iradi atlantiko eta azpiatlantikoak		E5.31(X)
Mendietako iradi atlantiko eta azpiatlantikoak		E5.31(Y)
Elorridun sastrakadi azidofilo atlantikoa (<i>Rubus gr. glandulosus</i>)		F3.13
Ulex europaeus-dun otadi atlantikoa		F3.15(Y)

Zonalde honetan aurrera eramaten diren aprobetxamendu guztietarako kontuan hartu beharko da oinarrizko habitat eta espezieak eta babes erregimen bereziko espezieen kontserbazio egoera onargarria mantendu beharko dela. Hala, eremu horiek aprobetxatzeko, «larreak antolatzeke plana» egingo da, dokumentu honen 38. neurrian ezarritakoari jarraiki; plan horren inguruko nahitaezko txosten loteslea EAEko Natura 2000 Sarean eskumena duen ingurumen-administrazioak egin behar du.

5.- BALIABIDEEN USTIAPEN INTENTSIBOKO EREMUAK (UIE)

Habitaten kontserbazioarekin zuzenean loturarik ez duten ustiapen ekintzak barne hartzetan dituzten eremuak dira. Ustiapen prozesuen ingurumen integrazio egokiari esker, ekintza hauek eremuaren osotasun ekologikoa, habitat naturalen presentzia eta kontserbaziorako balioa duten espezieak ez dituzte arriskuan jartzen. Horrela izan ezean, berriztatze ekologikoko eremu edo lekuarekin bateragarriak diren beste eremu batzuetan bihurtu beharko dira.

KBEan dauden fruta-arbolen landaketak, aprobe txamendu intentsiboko zonalde kontsideratzen dira.

Gainera, 20. neurriari jarraituz, dokumentu hau indarrean dagoen lehenengo bi urteetan, «baso- aprobe txamendu intentsibo» gisa mantendu ahal izango diren baso-landaketa unadak identifikatuko dira. Zonalde horien azalera ezingo da izan KBEko zuhaitz azaleraren % 30 baino handiagoa.

6.- ERABILERA PUBLIKOKO EREMUAK (EPE)

Jolas erabilera, interpretazioa eta ingurumen hezkuntzarekin lotutako ekintzak erregulatu eta barne hartzen dituzten erabilera publikora zuzenduriko ekipamendudun eremuak dira. Eta bisitarien ugari jasotzen dituzte. Balizatutako bideak eta eremu hauetara iristeko sarbideak ere talde honetan sartzen dira.

Bisitariak jasotzen dituzten aisialdirako, interpretaziorako edo ingurumen hezkuntzarako ekintzak jasotzeko edo erregulatzeko ekipamenduak ere hemen biltzen dira.

Zelatungo tabernen zonaldea eta mendiko xenda homologatuak ere Erabilera Publikoko Zonalde izendatzen dira.

7.- HIRI EREMUAK ETA AZPIEGITURAK (HEA)

Eremuaren barruan aurki daitezken hiriguneak, jendea bizi den eraikin eta baserriak, azpiegitura zein eraikin artifizialak talde honetan sartzen dira.

Parkeak, lorategiak eta dentsitate baxuko eraikinak modu honetan katalogatzen dira.

2013ko apirilaren 30a, asteartea

JARRAIPEN ADIERAZLEAK

HELBURUA	EMAITZA	ADIERAZLEA	HASIERAKO BALIOA	ERREFERENTZIAKO BALOREA
KBEko kobazulo eta barrunbeak modu egokian babestu.	Modu egokian KBEko barrunbeak eta akuiferoaren kontserbazio egoera definitzen da parametro kuantitatiboen bidez, eta erregimen prebentiboa eta alarma goiztiarreko sistemak jartzen dira martxan.	Kontserbazio egoera	Zehaztu gabea	Ezaguna
	Hainbat barrunberen sarrean ikusitako inpaktuak ezabatuko dira.	Inpaktu esanguratsuak dituzten barrunbe kopurua	Ezezaguna	0
Baso naturalen naturaltasun eta egituraren komplexutasun gradu altua lortzea eta KBEko unaden fragmentazioa gutxitzea.	Interes bereziko hostoerokorren unaden kontserbazioa ziurtatu da.	BBEn intereseko unadak	0	% 100
	Hariztien azalera handitu da.	Mantentzen jarraitzen diren zuhaitz lepatuen azalera (ha)	0	25
	Bertako basoen egitura eta eraketa hobetu da.	Hariztien azalera (ha)	85	115
		Eboluzio naturaleko basoak (ha)	0	185
		Naturaltasun indizea	Ezezaguna	Ezaguna

2013ko apirilaren 30a, asteartea

HELBURUA	EMAITZA	ADIERAZLEA	HASIERAKO BALIOA	ERREFERENTZIAKO BALOREA
	Zuhaitz zaharren eta hildako egurraren presentziaren garrantziaz jabetu.	Hiritarren sentsibilizazio maila	Baxua	Altua
Sega belardi eta mendiko larreen azalera adierazgarria mantentzea, eboluzio fase ezberdinetan, orban txiki eta irregularrez eratutako mosaiko heterogeneoekin.	Sega belardi eta mendiko larreen azalera mantendu da.	Larre eta sastrakadien azalera (ha)	454	≥ 454
		Ingurumen kontratupean dagoen azalera (ha)	0	340
		Berrezarritako heskaiak (ha)	0	3.000
Mehatxatutako koleoptero saproxilikoekin egonkorrak mantendu.	Mehatxatutako koleoptero saproxilikoekin gaur egungo egoera ona modu zehatzean eta egokian ezagutzen da.	Kopurua eta banaketa esparrua	Ezezaguna	Ezaguna
		Basoan, lurrean dagoen hildako egur kopurua (m ³ /ha)	Ezezaguna	8 m ³ /ha
		Zutik dirauen hildako egurraren bolumena (m ³ /ha)	Ezezaguna	3 zuhaitz/ha
	Espezie saproxilikoekin garrantzia zabaldu.	Administrazioeko pertsonen ezagutza maila	Ezezaguna	Altua

2013ko apirilaren 30a, asteartea

HELBURUA	EMAITZA	ADIERAZLEA	HASIERAKO BALIOA	ERREFERENTZIAKO BALOREA
<p>Sai arrea eta sai zuriaren presentzia ziurtatu, habia egiten duten puntuetan babes zorrotza ezarri, elikadura eta larreatze azalerak kontserbatu eta heriotza ez naturalen kausak ekidin.</p>	<p>Hegazti sarraskijaleen heriotza ez naturalen kausak detektatu eta ekidin dira.</p>	<p>Sarraskijaleen heriotza tasa ez naturalen kasuak</p>	<p>Ezezaguna</p>	<p>0</p>
	<p>Gutxienez larre eta sastrakadi estentsiboan 740 ha mantendu dira.</p>	<p>Larre eta sastrakadien azalera (ha)</p>	<p>740</p>	<p>≥ 740</p>
	<p>Bi espezie horientzat eskaintza trofikoak ziurtatu da.</p>	<p>Aplikaturako informeteki-koko gomendioak</p>	<p>Ez dago</p>	<p>% 75</p>
<p>Gutxienez gaur egun KBEan dauden kiropteroen populazio egonkorrak mantendu, babeslekuak eta elikagaia eskainiko dieten mikrohabitatuak eta elementuen presentzia bultzatuz.</p>	<p>KBEko kiroptero espezieen banaketa eta kopurua nahiko ezagutzen da.</p>	<p>Banaketa esparrua eta ugartasuna</p>	<p>Ezezaguna</p>	<p>Ezagunak</p>
	<p>Kiroptero espezieen babeslekuak eta elikatze tokien azalera areagotu dira.</p>	<p>Habia-kutxa kopurua</p>	<p>0</p>	<p>200</p>
<p>Hernio-Gazumeko biodibertsitatearen kontserbazioaren egoera eta kalteak eragin ditzaketen kausak ezagutzea, epe luzean mantentzeko beharrezko neurriak diseinatu ahal izateko.</p>	<p>Hernio-Gazumeko dibertsitate biologikoa eta osotasun ekologikorako esanguratsua diren leku edo elementu natural edo kulturalen eta kontserbatzeko interesgarriak diren habitatu guztiak kartografia eguneratua eskura dago.</p>	<p>EUNIS kartografia</p>	<p>2009an errebitua</p>	<p>Eguneratuak</p>
		<p>Geoerreferentziatutako inbentario irekia</p>	<p>Ez dago</p>	<p>Indarrean</p>

2013ko apirilaren 30a, asteartea

HELBURUA	EMAITZA	ADIERAZLEA	HASIERAKO BALIOA	ERREFERENTZIAKO BALOREA
	Babes bereziko erregimeneko basa espezie eta desagertzeko arriskuan dauden habitat guztien kontserbazio egoera ezagutzen da.	Kontserbazio egoera	% 77 ezegaguna	Ezaguna (ERPE habitat eta espezieen % 100)
	Hernio-Gazumeko dibertsitate biologiko osoa eta ekosistemak hornitzen dituzten Hernio-Gazumeko ingurumen ondasun eta zerbitzuen balio ekonomikoaren estimazioa eskura dago.	Biodibertsitatearen balio ekonomiko orokorra	Ezegaguna	Kalkulatua
	KBEan eta bere ingurunean gertatzen diren basa faunaren heriotza ez naturalen puntu beltzen mapa egin.	Puntu beltzen mapa	Ez dago	Badago
Hernio-Gazumeko KBEan eragina duten erabakiak hartzeko prozesuetan gizartearen partaidetza bultzatzea eta KBEaren kontserbazioan hiritarren inplikazioa bultzatzea.	Gizarteari, Hernio-Gazumeko biodibertsitatearen informazioa erregulariki helarazten zaio.	Hiritarren ezagutza maila	Baxua	Altua
Organo kompetente guztien koordinazio instituzionala hobetu eta Ingurumen araudia eta zatikako araudia	Eusko Jaurlaritzaren Biodibertsitate Zuzendaritza eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren Hernio-Gazumeko ekintzak koordinatu	Jarraipen Organoa: saio kopurua / hiritarrek egindako ekarpenen %	0/0	urte 1 / % 50
		Batzorde teknikoa	Ez dago	Indarrean

2013ko apirilaren 30a, astearta

HELBURUA	EMAITZA	ADIERAZLEA	HASIERAKO BALIOA	ERREFERENTZIAKO BALOREA
egokitu, dokumentu hone- tako helburu, neurri, jarraibide eta arauekin bat etor dadin.	daitezen talde tekniko iraunkorra sortzen da.			
KBEari eragiten dioten pro- zesuetan, parte hartzea sustatu, hiritarrak kontser- bazioan inplika daitezen.	Planaren aplikazioa errazteko ingurumen araudi eta zatikako araudi guztia egokitu da.	Bateragarriak diren zatikako planak	Ebaluatu gabea	% 100